

ZIENTZIA ESPERIMENTALAK ETA HAIEN DIDAKTIKA

ITXASO LEGARREA OYARZUN

ZIENTZIARI EKIN:
ESKOLARAKO
PROPOSAMENAK
NATURAREN GERTAERAK
AZALTZEKO,
ESPERIMENTATZEN,
PENTSATZEN ETA
KOMUNIKAZIOAREN
BITARTEZ

GBL 2014



Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua /
Grado en Maestro de Educación Primaria

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

ZIENTZIARI EKIN: ESKOLARAKO
PROPOSAMENAK NATURAREN GERTAERAK
AZALTZEKO, ESPERIMENTATZEN, PENTSATZEN
ETA KOMUNIKAZIOAREN BITARTEZ.

ITXASO LEGARREA OYARZUN

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Itxaso Legarrea Oyarzun

Izenburua / Título

ZIENTZIARI EKIN: ESKOLARAKO PROPOSAMENAK NATURAREN GERTAERAK AZALTZEKO, ESPERIMENTATZEN, PENTSATZEN ETA KOMUNIKAZIOAREN BITARTEZ.

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Julia Ibarra Murillo

Saila / Departamento

Psikologia eta Pedagogia Saila/ Departamento de Psicología y Pedagogía

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2013/2014

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Lehen Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Lehen Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Lehen Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakuts dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira

Lehen Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua/ak psikologia eta pedagogia korrante nagusietan oinarritutako marko teorikoa garatzeko bidea eman digu, zehazki, Piaget, Vygotsky, eta Ausubel bezalako autoreak abiapuntu izan dira. Marko teoriko honek zentzua eman dio, eskolan, metodo aktiboa eta ikaskuntza kooperatiboa ezartzeari, etaparen aspektu sozial, psikologiko eta pedagogikoak kontutan harturik.

Didaktika eta diziplinako modulua/a zientzia irakasteko egiten den sekuentzia didaktiko baten proposamenarekin zehazten da. Bertan metodologiarekin lotutako aspektuak, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eta Kurrikuluak markatzen dituen Etapako Helburu Orokorrak (24/2007 Dekretu Forala) hartu dira kontutan. Horregatik, proposamen didaktikoan helburu, eduki eta ebaluazioaren plangintza egin da.

Halaber, laneko lehenbiziko urteetako esperientziak, ikasgelako ezagutza praktiko eta erreala ezagutzeko bidea eman digu, horren ondoren emaitzen analisia egiteko eta konklusioak ateratzeko. Honek, ikas-irakaskuntza prozesuan hobekuntzak egiteko asmoarekin, aurretik aipatutako sekuentzia didaktiko berri baten proposamena aurrera eramateko aukera eman duelarik.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko da "MARCO TEÓRICO" atala, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

Laburpena

Gradu amaierako lan honetan zientzien irakaskuntzari buruzko ikerketa bat egin da. Ikerketan, 2012-2013. Ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ingurune klasean zehar egindako lana behatzen da. Behaketari hasiera emateko, irakaslearen esperientzia, inpresioak eta bizipenak oinarria izan dira. Gero, inpresio horiek guztiak baieztatzeko material bilketa bat egin da, irakaslearen hasierako ideien isla eta justifikazioa diren datu eta emaitza objektiboak lortuz.

Behaketan zehar, irakaslearen lan egiteko modua eta erabilitako materialak aztertzen dira, baita irakasleak berak egindako lanaren hausnarketak egin eta gero, aurkitutako zailtasun eta hutsuneak ere. Ondoren, hausnarketan lortutako datuak ebaluatu eta antzeman diren hutsuneak zehaztu eta azalerau dira.

Bukatzeko, gaur egun balioesten den metodologia aktiboa eta kooperatiboa zientzia eremuan aplikatuz eta zientziak irakasteko “pentsatzea, esperimendatzea eta hitz egitea” modurik egokiena direneko oinarrietatik abiatuz, irakasle horren esperientzia hobetzeko sekuentzia didaktiko baten proposamena egin da, Lehen Hezkuntzan lortu behar diren oinarrizko gaitasunak eskuratzera bideratua dagoena.

Hitz klabeak: Autorregulazioa; Eskola; Indagazioa; Kooperazioa; Zientzia.

Abstract

This research assignment is a focused review of the current status of teaching science in the Primary School. The evidence and findings presented have been gathered through my teaching observation of the 4th course of Primary School during the 2012-2013 academic year. At the beginning, I gathered evidence on different and observable elements such as teacher's feelings, experiences and classroom work. Then, a number of teaching materials used in the lessons have been collected as teacher's ideas justification.

During the year, I observed teacher's manner of work and the materials she had used. Positive feedback on overcoming learning difficulties and barriers was also given and discussed.

Finally, I have designed a Science lesson plan integrating Key skills learning. In this plan, I put into practice collaborative methodologies as well as active learning

methodologies and I defend the idea that the best way to teach science is “thinking, experimenting and speaking”.

Keywords: Science; School; Thinking; Collaboration; Self-regulation; Inquiry.

Resumen

En este trabajo fin de grado se ha realizado una investigación a través de la observación sobre la enseñanza de las ciencias en la escuela. Para ello, se ha observado el trabajo realizado en un aula de 4º de Educación Primaria durante el curso 2012-2013. La observación parte de la base de las experiencias, impresiones y vivencias de la profesora. Con el objetivo de dar validez, reflejar y justificar esas experiencias, se hace una recopilación de material de donde se obtienen datos y resultados objetivos. Durante la observación, se han analizado el modo de trabajar y los materiales utilizados por la maestra, y también, las dificultades que ella identifica después de haber analizado su trabajo. Los datos obtenidos de la reflexión son evaluados y se exponen los obstáculos que se contemplan.

Para finalizar, se hace una propuesta de mejora mediante una secuencia didáctica para enseñar ciencias en la escuela. Esta secuencia está orientada a conseguir las Competencias Básicas de la Educación Primaria, utilizando metodologías activas y de cooperación y basándose en la idea de que “pensar, experimentar y comunicar” son la mejor opción para enseñar ciencia.

Palabras clave: Ciencia; Escuela; Indagación; Cooperación; Autorregulación.

Aurkibidea

Sarrera	3
1. Aurrekariak	5
1.1. Irakaslearen esperientzia	5
1.2. Ingurunearen Ezagutzaren 2012/2013. urteko programaketa	6
1.3. Ingurunearen Ezagutza ikasgaiaren antolaketa	7
1.4. Gaiaren lanketa	12
1.4.1. Oinarrizko Gaitasunak	12
1.4.2. Helburuak	12
1.4.3. Edukiak	13
1.4.4. Metodologia	13
1.4.5. Saioen garapena	14
➤ Animaliak eta landareak	14
➤ Ekosistemak	30
1.5. Ebaluazio irizpideak	46
1.6. Eraitzen analisia eta hausnarketa	47
2. Helburuak	56
3. Eztabaidagaiak	57
4. Marco Teórico	58
4.1. Visiones del concepto ciencia	58
4.2. Teorías del aprendizaje y ciencia	60
4.3. Rol del docente	61
4.4. Cómo enseñar ciencias en clase de Educación Primaria	66
4.5. Cómo trabajar los seres vivos en el aula	71
4.6. La importancia de las preguntas en la enseñanza aprendizaje de las ciencias	74
4.7. Las ideas de los escolares. El error.	78
5. Proposamen berria	80
5.1. Proposamenaren aurkezpena eta justifikazioa	80
5.2. Sekuentzia didaktikoa	86
5.3. Ebaluazioa	102
Ondorioak	107
Erreferentziak	111
Eranskinak	114
Eranskina I : 2012/2013 ikasgaiko saioren banaketa	114
Eranskina II : Animalien bizi funtzioak	115
Eranskina III : Zeta beldarra	116
Eranskina IV : Animalien Ugalketa	119
Eranskina V : Ega ibaiaren behaketa	121
Eranskina VI : Landareen bizi funtzioak	123
Eranskina VII : Landareen Ugalketa	124
Eranskina VIII : Landareen Ugalketa	126
Eranskina IX : Esperimentazioa	128
Eranskina X : Landareen Ugalketa Asexuala	129
Eranskina XI : Ega ibaia	130
Eranskina XII : Erika Sarea	132
Eranskina XIII : Izaki bizidunak	134

Eranskina XIV : Murala	135
Eranskina XV : Maketa	136

SARRERA

Gaur egun, zientziaren irakaskuntzan, indagazioa aipatzen da zientzien irakaskuntza on bat egin nahi denean, zenbait instituziok (europar nahiz amerikarrak: American Association for the Advancement of Science, 1993; National Research Council, 2000; National Science Teachers Association, 2007; Duschl *et al.*, 2007; Rocard *et al.*, 2007; Osborne y Dillon, 2008; Association for Science Education, 2009, e Instituto de Evaluación, 2010) duela hainbat urte gomendatzen zuten moduan.

National Research Council (1996)-en arabera, indagazioak behaketa, galderak sortzea, liburuak eta beste informazio iturriak aztertzea, ikerkuntzak planifikatzea, esperimendazioaren bitartez dakigunaren errebisioa egitea, datuen analisia egitea, erantzunak, predikzioak eta azalpenak proposatzea, eta emaitzak komunikatzea barne hartzen ditu.

Bestalde, Cañal (2006, 2007)-k eskola indagazioari buruz egiten duen definizioa ikasleek berezko duten gaitasun eta indagazio nahian oinarritzen da. Irakasleari orientatzaile, diseinatzaile, bideratzaile eta gida lana uzten dio, modu honetan, ikasleren jakin-min eta ikasteko nahia ase behar dituelarik.

Pujol (2003)-ek dio, hezkuntzako lehenbiziko etapetatik, pentsatzen, hitz egiten, autoerregulatzen eta interakzioan jarduten irakatsi behar dela. Cañal (2007)-ek, gainera, indagazio didaktikoaren eta esperimendazioaren lanketaren beharra indartzen du. Honen aurrean, Anderson (2002)-ek edozein irakaslek indagazio bidezko irakaskuntza eredu bat erabil dezakeen planteatzen du, edo bakarrik irakasle bikain baten esku dagoen metodoa den. Autore askorentzat, arazo bat dago irakasleek duten zientzia ezagutzan. Orokorrean, irakasletza ikasketetako ikasleek zientziaren inguruko azaleko ezagutza bat besterik ez dute (Cañal, 2000). Pujol (2008)-k dio irakasletza diplomaturako ikasleen ezagutza zientifikoa ez dela nahikoa Zientzia Esperimentalen Didaktikak eskatzen dituen eduki zientifikoak lantzeko.

Nire kasuan, 2006-2009. urteetan burutu nituen Lehen Hezkuntzako irakasletza diplomaturako ikasketak. Betidanik nire nahia zientzia irakasle bihurtzea izan zen, ikasle nintzenean, beti jaso nuen Ingurune Zientzia eta Biologia ikasgaitan emaitzarik altuena,

bikaina alegia, eta gogokoen nituen ikasgaiak ziren. Hasiera batean Biologia ikasi behar nuela argi nuen, baina azkenean, iritziz aldatu eta Lehen Hezkuntzako Irakasletza Diplomatura ikasi nuen.

Gradu amaierako lan honetan, nik tutore moduan izan nuen lehenbiziko esperientzia, eta beraz, ingurune natural, sozial eta kulturala ikasgaia irakasten izan nuen lehenbiziko esperientzia, aztertzen da. Hasiera batean, nik ingurune zientziak hain gogoko izanda, ziurtasuna nuen nire buruarengan, eta ongi egingo nuela iruditzen zitzaidan. Baina arazo askorekin topo egin nuen, batetik, egokitu zitzaidan taldea oso konplexua zen eta mota ezberdinetako arazo nahiko zituen, eta bestetik, oso laguntza gutxi jaso nuen beste irakasleen eskutik. Horrek, nik nahiko nukeen moduan lan egitea oztopatu zidan, horregatik aukeratu dut gai hau nire Gradu Bukaerako Lana defendatzeko. Jarraian aurkezten den lan honetan nik aurreko ikasturtean, 2012-2013. ikasturtean, ingurune ikasgaia nola eraman nuen aurrera deskribatzen da, eta horren inguruko kritikak aurkezten dira: Nola ulertzen dut nik zientzien irakaskuntza? Zer egin beharko nuke kurrikuluak eskatzen dituen gaitasun zientifikoak irakasteko? Saiatu al nintzen indagazioan oinarritzen den metodologia bat erabiltzen? Zein neurritan aplikatu nituen Lehen Hezkuntzako Irakasletza Diplomaturan eskuratutako jakintzak eskolan egin nuen lanean?

1. AURREKARIAK

1.1. Irakaslearen esperientzia

2012/2013 ikasturtean nire lehenbiziko esperientzia izan nuen Lehen Hezkuntzako tutore moduan. D ereduko 4. mailako tutore izatea egokitu zitzaidan Nafarroako eremu mixto batean. Eskolan 4. mailako D ereduko bi lerro zeuden, eta han geunden bi irakasleak berriak ginen horrelako esperientzia batean.

Eskolan *“Ingurunearen Ezaguera. Anaya Haritza. Nafarroa”* liburua erabiltzen zen Ingurune ikasgaia emateko eta zenbait bilera izan genituen libururik aproposena zen edo ez adosteko. Gehiengoa ezezkoaren aldeko ginen, baina Nafarroako Gobernuak eskaintzen duen doakotasun programa dela eta, beste ikasturte batez *“Ingurunearen Ezaguera. Anaya Haritza. Nafarroa”* liburua erabiltzea erabaki zen azkenik. Hori dela eta, gure ingurunearen ezagutza ikasgaiko urteko programazioa liburu horren gaitegiaren menpe geratu zen. Liburuak 15 gai ditu, beraz hasierako antolakuntza hurrengoa izan zen, 5 gai hiruhileko bakoitzeko. Baina azkenean, beharren arabera aldaketak sortuz joan ziren, kurtsoan zehar haien banaketa aldatu egin zen.

1.2. Ingurunearen Ezagutza 2012/2013. Ikasturteko programaketa

1.Taula. Ikasturteko programaketa.

1. HIRUHILABETEAN:

- 1. GAIA: EGURALDIA ETA KLIMA
- 2. GAIA: ERLIEBEA ETA URA PAISAIAN
- 3. GAIA: HARRIAK PAISAIAN
- 6. GAIA: ZER EGIN IZAKI BIZIDUNEKIN?

2. HIRUHILABETEAN:

- 7. GAIA: MUNDUAREKIN HARREMANETAN
- 15. GAIA: GUZTIONTZAKO PLANETA
- 8. GAIA: BIZITZEN, LAN EGITEN, DIBERTITZEN
- 10. GAIA: GIZARTEAK ALDATU EGITEN DIRA I
- 11. GAIA: GIZARTEAK ALDATU EGITEN DIRA II

3. HIRUHILABETEAN:

- 4. GAIA: ANIMALIAK ETA LANDAREAK
- 5. GAIA: EKOSISTEMAK
- 12. GAIA: GAUZAK NOLAKOAK DIREN ETA NOLA ALDATZEN DIREN

HIRU GAI LANDU GABE GERATU ZIREN

- 9. GAIA: GIZARTE ANTOLAKETA
- 13. GAIA: ENERGIA
- 14. GAIA: MAKINAK ETA TEKNOLOGIA

Denbora falta ikusita 9. gaia uztea erabaki genuen, azken finean, oso gai teorikoa eta kontzeptuzkoa zela iruditzen zitzaigun. Baina 13 eta 14. gaiak ez lantzea pena izan zen, gai mamitsuak eta interesgarriak direlako, eta zientzian murgiltzeko oso aproposak.

Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimendatzen, pentsatzen eta komunikazioaren bitartez.

1.3. Ingurunea ikasgaiaren antolaketa

Niri egokitu zitzaidana, 22 ikaslez osatutako ikasgela bat zen, horien artean, 2k TDA-H diagnostikoa zuten, beste batek arazo emozionalak zituen eta laugarren batek (ikasturte horretan eskolara etorri berria), atzerapen orokorra zuen, HH3 eta LH1 bitarteko maila kurrikularra zuen.

Ingurune ikasgaiaren, ikasleen artean, jakintza eta ulermen mailari, eta edukiak kontrolatzeari dagokionez, alde nabarmenak ikusten ziren batzuk eta besteen artean. Baina hizkuntza idatzian zailtasun orokor bat antzematen zen, esaldi osoak eratzea kostatu egiten zitzaien, hau, zientzia testuak sortzea dakartzan zailtasun espezifikoekin lotuta, nahiko oztopo handia izan zen ikasturte osoan zehar. Ikasleak askotan ez ziren gai haien ideiak behar bezala hizkuntza bidez adierazten. Hori dela eta, lan egiteko zuten ohitura oso mekanikoa eta oroimenezkoa zen. Hizkuntza idatzia lantzea kostatu egiten zitzaienez hau ekiditen saiatzeko ziren, eta azkenean beraiantzat errazten suertatzen zen dinamika hartu genuen:

- Gaiaren izenburua aztertu eta horren inguruan genekiena komentatu.
- Etxetik gaiarekin erlazionaturik egon zitekeen informazioa, liburuak, materialak ekarri eta materialak komentatu.
- Liburuaren atazak ozenean irakurri (saio bat ataza bakoitzeko).
- Irakurketatik ulertutakoa eta informaziorik garrantzitsuenak ahoz komentatu.
- Irakasleak ikasi beharreko zer zen esatea eta azpimarratzeko eskatzea (horrela ez egitekotan segurtasun-gabezi handia nabaritzen zen haiengan).
- Ikasleek azpimarratu eta buruz ikastea (askotan esaten zutena ulertu gabe ere).
- Eduki garrantzitsuenak indartzeko liburuak eskaintzen zituen zenbait jardueraren burutzea.
- Azterketarako errepassoak egitea eta birgogoratzea azterketan idatzizko azalpenak ez zirela liburuarena bezalakoak izan behar, idazten zutena ulertzen zutela islatu behar zutela gogorarazten nien.

Ingurune saioetarako beste irakasleengandik jasotako laguntzak klasetik kanpo erabili genituen kurtsoan zehar, 3 pertsonen laguntza jaso nuen: PT-a, logopeda eta 4.mailako beste tutorea.

Ingurune ikasgaiko 4 saio izaten genituen astean zehar: (*ikus Eranskina I*)

Astelehena patioa eta gero: ni talde osoarekin egoten nintzen.

Asteartea bazkaldu eta gero: PT-ak hiru ikasle hartzen zituen. (TDA-H zutenak eta arazo emozionalak zituenak).

Osteguna bazkaldu eta gero: logopedak ikasle bat hartzen zuen (atzerapen orokorra zuena).

4. mailako beste tutoreak (6-8 ikasle hartzen zituen).

Ostirala bazkaldu eta gero: PT-ak atzerapen orokorra zuen ikaslea hartzen zuen.

Batetik, eskolako PT-a etortzen zen, TDA-H zuten 2 ikasleak eta arazo emozionalak zituen ikaslea ateratzera. Hiruak batera ateratzen ziren astearte arratsaldeko saio batean, oinarrizko edukiak lantzen zituzten, eta oso lan bideratua egiten zuten, ikasteko estrategiak ikasten zituzten, azterketarako edukiak oinarri hartuta. Ikasle hauentzat oso garrantzitsua zen besteekin batera azterketa egin eta gaitzitatea, beraien auto-estimua goratzen zuen honek. Dena den, azterketak moldatuak ziren, formatu bera mantentzen saiatzen ginen, baina, letra handitzen genuen, galderaren bat gutxiago jartzen genuen, edota galderak irekiak izan beharrean galdera itxiagoak ziren, adibidez, erantzuna aukeratzeko aukerak emanaz.

4. Zer desberdintasun dago biztanleria aktiboa eta ez-aktiboaren artean? Zu ze taldetan kokatuko zinateke?

- Biztanleria aktiboa: lan egiten dutenak.
 - Biztanleria ez-aktiboa: Haurak, arazoengatik, PK lan ezin duten pertsonak, NPK biztanleria ez-aktiboa roga.

5. Kokatu lanbide hauek dagokion tokian.

Medikuntza - Nekazaritza - Industria - Irakaskuntza - Eraikuntza - Abeltzaintza

Lehenengo Sektorea	Bigarren Sektorea	Hirugarren Sektorea
- Nekazaritza - Abeltzaintza	- Industria - Eraikuntza	- Medikuntza - Irakaskuntza

6. Zein da langile kopuruaren arabera Nafarroako sektorerik garrantzitsuen?

3. sektorea da garrantzitsuen.

7. Aipatu zure herriko eta Nafarroako ohituraren bat.

San Fermin, Santa Agada, eguberriak eta inauteriak.

4. Zer da biztanleria aktiboa?
 16 urte edo gehiago eta lan egiten dute

Zein taldetan zaude zu: biztanleria aktiboan edo ez-aktiboan?
 Ez-aktiboan bazezake 16 urte edo gehiago bera behera.

5. Kokatu lanbide hauek dagokion tokian.

Medikuntza - Nekazaritza - Industria - Irakaskuntza - Eraikuntza - Abeltzaintza

Lehenengo Sektorea	Bigarren Sektorea	Hirugarren Sektorea
Nekazaritza Abeltzaintza	Industria	Eraikuntza Irakaskuntza Medikuntza

6. Zein da langile kopuruaren arabera Nafarroako sektorerik garrantzitsuen? Aukeratu erantzun egokia.

a) 1. go Sektorea b) 2. Sektorea c) 3. Sektorea


7. Aipatu ohituraren bat.

a) Zure herrikoa: Lasocianeko jostak, edozein bazarra?

b) Nafarroakoa: Najarako jostak, San Fermin, santagode, sanjuan, san nikolas...

1. Irudia. Ikasleei egindako azterketa baten galderen adibidea eta TDAH zuten ikasleei egindako azterketa moldatuaren galderen adibidea.


Bestetik, ostegun arratsaldeko saioan, logopeda etortzen zen, atzerapen orokorra zuen ikaslearekin lan egitera. Ikasle honek ez zuen gure gaitegia jarraitzen, klasetik ateratzean bere gaitegi espezifikoak jarraitzen zuen. Aldiz, gela barruan zegoenean 1. mailako liburu baten egokitzapen bat egin genion, gai berdina lantzen zuen materialarekin, baina askoz maila baxuagoan. Halere, oso zaila zen ikasle honentzat bakarrik, superbisiorik gabe lan egitea, eta berak talde handian ere parte hartu nahi izaten zuen. Horregatik, PT-arekin zituen saioetan (ostiral arratsaldeko saio bat), muralak prestatzen zituzten, bere ikus memoria oso ona baitzen. Gero, gure aurrean klasean aurkezten zituen. Egia da berak ez zituela ulertzen lantzen zituen kontzeptuak, baina beste ikasleentzat kontzeptuen errepaso moduan erabilgarria zen, eta berarentzat oso positiboa lagunekin batera lan egitea, eta lagunek ikustea berak ere lan garrantzitsuak egiten zituela.



2.Irudia. Atzerapen orokorra zuen ikasleak lantzen zituen muralen adibidea.

Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimendatzen, pentsatzen eta komunikazioaren bitartez.


Ikasi.



Jaio Hazi Ugaldtu Hil


Indaba landarea da.
Landareak izaki bizidunak dira.
Ura, argia eta airea behar dituzte bizitzeko.

Ordenatu.



104 ehun eta lau


Ikasi.



fruituak
loreak
hostoak
adarrak
enborra
zurtoina
sustraiak

Landareek sustraiak, zurtoina edo enborra, adarrak, hostoak, loreak eta fruituak dituzte. Landareek hostoetatik hartzen dute arnasa. Sustraietatik elikatzen dira.

Idatzi landareen atalen izenak.



ehun eta bost 105

3. Irudia. Atzerapen orokorra zuen ikaslearen banakako lanaren adibidea.

Azkenik, 4. mailako beste tutorearekin ikasle taldetxo bat ateratzen zen ostegun arratsaldetan, ez zen klasearen bikoizketa, baina 6-8 ikasle ateratzen ziren. Normalean zailtasun gehiago zuten 5 ikasle finkoak ziren eta beste batzuk txandakatzen joaten ziren. Talde txiki honek, gelan lantzen genuen gauza bera lantzen zuen, gehien bat liburuko jarduerak egiten zituzten, izan ere, idazketan hutsune handia zuten, eta talde txikiago batean errazagoa da idazketa lantzea, besteen aurrean parte hartzea, ozenean irakurtzea eta irakasleak saioan zehar denon beharretara iristea.

1.4. “Animalia eta landareak” eta “Ekosistemak” gaien lanketa

1.4.1. Oinarrizko gaitasunak

- ✓ Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna.
- ✓ Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.
- ✓ Ikasten ikasteko gaitasuna.
- ✓ Norberaren autonomia eta ekimena eta gaitasun emozionala.
- ✓ Gaitasun artistikoa.
- ✓ Informazioa eta teknologia digitala tratatzeko gaitasuna.

1.4.2. Helburu Orokorrak

- ✓ Animalien hiru bizi funtzioak betetzen dituzten organoak eta aparatuak eta haiek egiten dituzten lanak sakonago *aztertzea*.
- ✓ Landareen elikatze-funtzioa *ezagutzea*.
- ✓ Landareen erantzunak *ezagutzea*, harreman funtzioa osatzen dute eta.
- ✓ Loredun landareen ugalketa funtzioa *ezagutzea*.
- ✓ Izaki bizidun guztiak *errespetatzeko ohiturak* sendotzea.

- ✓ Ekosistemaren ideia hartzea eta haiek osatzen dituzten osagaiak *ezagutzea*, zabalerak eta mugak.
- ✓ Elikagaien zikloa *ezagutzea* eta *deskribatzea* ekosistema batean. Izaki bizidunak *sailkatzea* zikloan daukaten kokapenaren arabera.
- ✓ Egokitzeko ideia hartzea eta izaki bizidunak ekosistemara egokitzeko modu batzuk *ezagutzea*.
- ✓ Planetako ekosistema handiak *ezagutzea* eta bertan bizi diren izakien egokitze nagusiak.

Planetako ekosistema guztien garrantzia eta elkarren menpekotasunaren ideia orokorra hartzea eta *babesteko jarrerak* garatzea.

1.4.3. Edukiak

2.Taula. Edukiak

<i>KONTZEPTUZKOAK</i>	<i>PROZEDURAZKOAK</i>	<i>JARRERAZKOAK</i>
Bizi funtzioak animalia eta landareetan: nutrizioa, ugalketa eta harremanak.	Zenbait prozesuren <i>deskribapen</i> ordenatua, animalien elikadura, loredun landare baten ugalketa-prozesua eta landareen fotosintesiarena adibidez.	Izaki bizidun guztiak <i>errespetatzea</i> .
	Animalia taldeen arteko <i>konparazioa</i> , bizi funtzioak betetzeko moduaren arabera.	Animali bakoitzaren garrantzia <i>balioestea</i> planetaren bizitzarako.
	Lore eta zuhaitzak <i>marraztea</i> ikusitako informazioa antolatzeko.	<i>Jakin mina</i> haien funtzioak nola betetzen dituzten jakiteko.
	Landaren baten eta lore baten atalak benetan eta argazkietan <i>aurkitzea</i> .	Landareen oxigeno eta elikagai ekarpena <i>aintzat hartzea</i> .
Ekosistema		
Elikagaien zikloa eta izaki bizidunen sailkapena:ekoizleak, kontsumitzaileak eta deskonposatzaileak.	Elikagaien zikloa ordenean <i>deskribatzea</i>	Espazio naturalak errespetatzeko eta kontuz jokatzeko jarrera eta ekosistema berriak ezagutzeko <i>ardura</i> .
Izaki bizidunen moldaera	Izaki bizidunak inguruan dituzten egokitzapenak <i>deskribatzea</i>	Ekosistemak arriskuan jartzen dituzten ekintzetarako <i>sentsibilitatea</i> eta haiek zaintzen laguntzeko <i>ardura</i> .

1.4.4. Metodologia

Orokorrean lan egiteko modu berdina erabili genuen kurtso osoan zehar. Gaiaren hasieran izenburua irakurrita bururatzen zitzaizkien ideiak bota zituzten, eta aurretik zekiten hori abiapuntutzat hartu genuen. Horrez gain, hurrengo egunean, etxetik gaiarekin erlazonaturiko informazioa eta materialak ekartzen zituzten, huraxe izaten zen abiapuntua eta interes pizgarria. Behin hori eginda gaiaren atazak lantzeari ekiten genion, eta beraiei egindako galderen bitartez eta nire azalpenarekin atazaren ideia garrantzitsuenak ulertzen saiatzen ginen. Bukaeran, hitz egindakoa indartzeko koadernoan ariketa idatziak egiten genituen. Behin gaia bukatuta errepasso jarduera batzuk egiten genituen eta azterketa idatzi bat, edukiak barneratuak zeuden ikusten laguntzen ziguna. Gai bakoitzaren bukaeran


ezagutzak aplikatzeko txango bat egiten saiatzen ginen, ekosistema gaiaren kasuan “Los Llanos” parkea eta Ega ibaia aztertu genituen. Bukaerako nota jartzeko ebaluazioa jarraituaren segimendua (klaseko eguneroko lana eta koadernoaren osotasuna) eta azterketa idatzia hartu genuen kontutan.

1.4.5. Saioen garapena

➤ *Animaliak eta landareak*

3.Taula. 1.saioaren azalpena.

1.saioa: 2013/04/08		
AZALPENA	Gaiaren izenburua aztertu eta horren inguruan genekiena komentatu: ANIMALIAK ETA LANDAREAK: “triceratopsaren mundua” irakurgaia oinarri hartuta ikasleen aurrezagutzen berri izan, horretarako santillana liburuak eskaintzen dituen galderaz baliatuz.	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
Ikasleek gaiaren inguruan zituzten aurre ideiak ezagutu eta ikasleak gai berrian barneratzea.	Kontzeptuzkoak: Bizi funtzioak animalia eta landareetan: nutrizioa, ugalketa eta harremanak. Jarrerazkoak: Jakin mina izaki bizidunek haien funtzioak nola betetzen dituzten jakiteko.	Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna. Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna. Norberaren autonomia eta ekimena eta gaitasun emozionala.



4.Irudia. Ikasleen aurrezagutzak ezagutzeko hasierako galderen adibideak

Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimendatzen, pentsatzen eta komunikazioaren bitartez.

4.Taula. 2.saioaren azalpena.

2. SAIOA: 2013/04/09:		
AZALPENA	Etxetik gaiarekin erlazionaturik egon zitekeen informazioa, liburuak, materialak ekarri eta materialak komentatu: Animalia eta landareen liburu asko ekarri zituzten (entziklopediak), Tulipan landareak, disekatutako piraña bat, etab.	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
Ikasleek ekarritako materialak aztertu motibazio eta pizgarri izan daitezten.	<p>Kontzeptuzkoak: Bizi funtzioak animalia eta landareetan: nutrizioa, ugalketa eta harremanak.</p> <p>Jarrerazkoak: Jakin mina izaki bizidunek haien funtzioak nola betetzen dituzten jakiteko.</p>	<p>Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna.</p> <p>Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.</p> <p>Norberaren autonomia eta ekimena eta gaitasun emozionala.</p> <p>Informazioa eta teknologia digitala tratatzeko gaitasuna.</p>



5. Irudia. Ikasleek haien etxetik ekarritako materialen erakusketa.

5.Taula. 3.saioaren azalpena.

3. SAIOA: 2013/04/10		
AZALPENA	<p>Liburuaren 1. ataza ozenean irakurri: NOLAKOAK GARA ANIMALIAK?</p> <p>Irakurketatik ulertutakoa eta informaziorik garrantzitsuena ahoz komentatu.</p> <p>Irakasleak ikasi beharreko zer zen esatea eta azpimarratzeko eskatzea:</p> <p><i>“Animaliak honako prozesu hauen bidez egiten dute nutrizio funtzioa: janariak hartzea eta arnastea energia lortzeko eta prozesu horiek burutu eta gero horietatik sortutako hondakinak kanporatzea. Bestalde animalioek aldaketak hautemateko harreman funtzioa dute eta horiei erantzunak emateko gorputz atalak”.</i></p> <p>Eduki garrantzitsuenak indartzeko liburuak eskaintzen zituen zenbait jarduera burutzea.</p>	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
<p>Animalien hiru bizi funtzioak betetzen dituzten organoak eta aparatuak eta haiek egiten dituzten lanak sakonago aztertzea.</p>	<p>Kontzeptuzkoak: Bizi funtzioak animalietan: nutrizioa eta harremanak.</p> <p>Prozedurazkoak: Zenbait prozesuren deskribapen ordenatua: animalien elikadura.</p> <p>Animalia taldeen arteko konparazioa, bizi funtzioak betetzeko moduaren arabera.</p> <p>Jarrerazkoak: Izaki bizidun guztiak errespetatzea.</p> <p>Animali bakoitzaren garrantzia balioestea planetaren bizitzarako.</p> <p>Jakin mina haien funtzioak nola betetzen dituzten jakiteko.</p>	<p>Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna.</p> <p>Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.</p> <p>Ikasten ikasteko gaitasuna.</p>

Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimendatzen, pentsatzen eta komunikazioaren bitartez.

6.Taula. 4.saioaren azalpena.

4. SAIOA: 2013/04/09			
AZALPENA		<p>Liburuaren 2. ataza ozenean irakurri: ANIMALIEN UGALKETA</p> <p>Irakurketatik ulertutakoa eta informaziorik garrantzitsuena ahoz komentatu.</p> <p>Irakasleak ikasi beharreko zer zen esatea eta azpimarratzeko eskatzea: <i>“Animalien ugalketa sexuala da, sexu arrak eta sexu emeak hartzen dute parte. Ugaltze prozesuan hiru etapa daude: ernalketa (kanpo ernalketa edo barne ernalketa izan daiteke), enbrioaren garapena (animalia obiparoengan arrautzaren barruen eta bibiparoengan amaren ugaltze aparatuaren barruan), kumeen jaiotza”.</i></p> <p>Eduki garrantzitsuenak indartzeko liburuak eskaintzen zituen zenbait jarduera burutzea.</p>	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK	
Animalien ugalketa prozesua aztertzea.	<p>Kontzeptuzkoak: Animalien ugalketa.</p> <p>Prozedurazkoak: Zenbait prozesuren deskribapen ordenatua: animalien ugalketa.</p> <p>Jarrerazkoak: Izaki bizidun guztiak errespetatzea.</p> <p>Animali bakoitzaren garrantzia balioestea planetaren bizitzarako.</p> <p>Jakin mina haien funtzioak nola betetzen dituzten jakiteko.</p>	Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna.	Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.
		Ikasten ikasteko gaitasuna.	

7.Taula. 5.saioaren azalpena.

5.SAIOA: 2013/04/11:		
AZALPENA	Beraiek etxetik ekarritako liburuen informazioa erabiltzeko, ikasle bakoitzak animali bat hautatu eta ari buruzko fitxa bat bete, kideei ozenean azaldu.	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
Animalien hiru bizi funtzioak betetzen dituzten organoak eta aparatuek eta haiek egiten dituzten lanak sakonago aztertzea.	<p>Kontzeptuzkoak: Bizi funtzioak animalietan: nutrizioa, ugalketa eta harremanak.</p> <p>Prozedurazkoak: Zenbait prozesuren deskribapen ordenatua: animalien elikadura, eta animalien ugalketa.</p> <p>Animalia taldeen arteko konparazioa, bizi funtzioak betetzeko moduaren arabera.</p> <p>Jarrerazkoak: Izaki bizidun guztiak errespetatzea.</p> <p>Animali bakoitzaren garrantzia balioestea planetaren bizitzarako.</p> <p>Jakin mina haien funtzioak nola betetzen dituzten jakiteko.</p>	<p>Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna.</p> <p>Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.</p> <p>Ikasten ikasteko gaitasuna.</p> <p>Norberaren autonomia eta ekimena eta gaitasun emozionala.</p> <p>Informazioa eta teknologia digitala tratatzeko gaitasuna.</p>


8.Taula. 6.saioaren azalpena.

6.SAIOA: 2013/04/12		
AZALPENA	<p>Liburuaren 3. ataza ozenean irakurri: NOLAKOAK DIRA LANDAREAK?</p> <p>Irakurketatik ulertutakoa eta informaziorik garrantzitsuena ahoz komentatu.</p> <p>Irakasleak ikasi beharreko zer zen esatea eta azpimarratzeko eskatzea:</p> <p><i>“Landareek nutrizio funtzioa egiteko honakoa egiten dute: batetik, sustraietatik ura eta mineralak xurgatu, bestetik hostoetatik eguzki argia eta airean dagoen karbono dioxidoa xurgatu eta hori guztia konbinatuz beraientzako elikagaia sortzen dute. Bestalde, animaliek bezala ere oxigenoa behar dute elikagaiekin konbinatu eta energia lortzeko. Harreman funtzioa ez dute animaliek bezain garatua baina zenbait aldaketen aurretan (argitasuna, hezetasuna...) erreakzionatu egiten dute loratuz, gorputz atalak mugituz, etab.”</i></p> <p>Eduki garrantzitsuenak indartzeko liburuak eskaintzen zituen zenbait jarduera burutzea.</p>	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
<p>Landareen elikatze-funtzioa ezagutzea.</p> <p>Landareen erantzunak ezagutzea, harreman funtzioa osatzen dute eta.</p>	<p>Kontzeptuzkoak: Bizi funtzioak landareetan: nutrizioa eta harremanak.</p> <p>Prozedurazkoak: Zenbait prozesuren deskribapen ordenatua: landareen fotosintesia.</p> <p>Jarrerazkoak: Izaki bizidun guztiak errespetatzea.</p> <p>Jakin mina haien funtzioak nola betetzen dituzten jakiteko.</p> <p>Landareen oxigeno eta elikagai ekarpena aintzat hartzea.</p>	<p>Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna.</p> <p>Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.</p> <p>Ikasten ikasteko gaitasuna.</p>


9.Taula. 7.saioaren azalpena.

7.SAIOA: 2013/04/15			
AZALPENA		<p>Liburuaren 4. ataza ozenean irakurri: HONELA UGALTZEN DIRA LANDAREAK.</p> <p>Irakurketatik ulertutakoa eta informaziorik garrantzitsuena ahoz komentatu.</p> <p>Irakasleak ikasi beharreko zer zen esatea eta azpimarratzeko eskatzea: <i>“Loredun landareen ugalketa sexuala da, organo arrak eta emeak hartzen dute parte. Prozesuan hainbat etapa daude: polinizazioa, hazia eta fruitua eratzea, haziak sakabanatzea eta ernetzea.”</i></p> <p>Eduki garrantzitsuenak indartzeko liburuak eskaintzen zituen zenbait jarduera burutzea.</p>	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK	
Loredun landareen ugalketa funtzioa ezagutzea.	<p>Kontzeptuzkoak: Bizi funtzioak landareetan: ugalketa.</p> <p>Prozedurazkoak: Zenbait prozesuren deskribapen ordenatua: loredun landare baten ugalketa-prozesua .</p> <p>Lore eta zuhaitzak marraztea ikusitako informazioa antolatzeko.</p> <p>Landaren baten eta lore baten atalak benetan eta argazkietan aurkitzea.</p> <p>Jarrerazkoak: Izaki bizidun guztiak errespetatzea.</p> <p>Jakin mina haien funtzioak nola betetzen dituzten jakiteko.</p>	Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna.	Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.
		Ikasten ikasteko gaitasuna.	

Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimendatzeko, pentsatzeko eta komunikazioaren bitartez.



6. Irudia. Landarearen ugalketari buruzko ariketak



7. Irudia. Izaki bizidun baten ezaugarrien fitxa zirriborroa.

10.Taula. 8.saioaren azalpena.

8.SAIOA: 2013/04/16		
AZALPENA	Dilistak landatu eta ernetze prozesua aztertu.	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
Landareen ernetze prozesua esperimendatzea. Ikasleen motibazioa eta jakin-mina areagotzea esperimendazioaren bitartez.	Kontzeptuzkoak: Ernetze prozesua. Prozedurazkoak: Zenbait prozesuren deskribapen ordenatua: ernetze prozesua. Ernetze prozesua marraztea ikusitako informazioa antolatzeke.	Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna. Norberaren autonomia eta ekimena eta gaitasun emozionala.




8. Irudia. Dilisten germinazioaren argazkia.


11.Taula. 9.saioaren azalpena.

Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimendatzen, pentsatzen eta komunikazioaren bitartez.

9.SAIOA: 2013/04/18		
AZALPENA	<p>Ahozko errepassoa egin galderen bitartez eta indartzeko ariketa batzuk.</p> <p>Haiek ekarritako materialen artean erleei buruzko liburu bat zegoen eta erleari eta polinizazioari buruz informazioa trukatzuz ahozkotetasuna landu.</p> <p>Bitartean taldeka zenbait landare lupa binokularretik begiratu, eta ikusitakoa marraztu.</p>	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
<p>Animalien hiru bizi funtzioak betetzen dituzten organoak eta aparatuak eta haiek egiten dituzten lanak sakonago aztertzea.</p> <p>Landareen elikatze-funtzioa ezagutzea.</p> <p>Landareen erantzunak ezagutzea, harreman funtzioa osatzen dute eta.</p> <p>Loredun landareen ugalketa funtzioa ezagutzea.</p> <p>Ikasleen motibazioa eta jakin-mina areagotzea esperimenteraren bitartez.</p> <p>Izaki bizidun guztiak errespetatzeko ohiturak sendotzea.</p>	<p>Kontzeptuzkoak: Bizi funtzioak animalia eta landareetan: nutrizioa, ugalketa eta harremanak.</p> <p>Prozedurazkoak: Zenbait prozesuren deskribapen ordenatua, animalien elikadura, loredun landare baten ugalketa-prozesua eta landareen fotosintesiarena adibidez.</p> <p>Animalia taldeen arteko konparazioa, bizi funtzioak betetzeko moduaren arabera.</p> <p>Lore eta zuhaitzak marraztea ikusitako informazioa antolatzeko.</p> <p>Landaren baten eta lore baten atalak benetan eta argazkietan aurkitzea.</p> <p>Jarrerazkoak: Izaki bizidun guztiak errespetatzea.</p> <p>Animali bakoitzaren garrantzia balioestea planetaren bizitzarako.</p>	<p>Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna.</p> <p>Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.</p> <p>Norberaren autonomia eta ekimena eta gaitasun emozionala.</p> <p>Gaitasun artistikoa.</p>



9. Irudia. lupa binokularretik ikusitakoaren irudia



10. Irudia. Errepaso ariketen adibideak

Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimendatzen, pentsatzen eta komunikazioaren bitartez.

12.Taula. 10.saioaren azalpena.

10.Saioa 2013/04/23:		
AZALPENA	Liburuak proposatzen dituen errepasso ariketak burutzea.	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
Animalien hiru bizi funtzioak betetzen dituzten organoak eta aparatuak eta haiek egiten dituzten lanak sakonago aztertzea.	Kontzeptuzkoak: Bizi funtzioak animalia eta landareetan: nutrizioa, ugalketa eta harremanak.	Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna.
Landareen elikatze-funtzioa ezagutzea.	Prozedurazkoak: Zenbait prozesuren deskribapen ordenatua, animalien elikadura, loredun landare baten ugalketa-prozesua eta landareen fotosintesiarena adibidez.	Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.
Landareen erantzunak ezagutzea, harreman funtzioa osatzen dute eta.	Animalia taldeen arteko konparazioa, bizi funtzioak betetzeko moduaren arabera.	Ikasten ikasteko gaitasuna.
Loredun landareen ugalketa funtzioa ezagutzea.	Lore eta zuhaitzak marraztea ikusitako informazioa antolatzeke. Landaren baten eta lore baten atalak benetan eta argazkietan aurkitzea. Jarrerazkoak: Izaki bizidun guztiak errespetatzea. Animali bakoitzaren garrantzia balioestea planetaren bizitzarako.	

13.Taula. 11.saioaren azalpena.

11.saioa: 2013/04/19		
AZALPENA	Liburuak proposatzen dituen errepasso ariketak burutzea.	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
Animalien hiru bizi funtzioak betetzen dituzten organoak eta aparatuak eta haiek egiten dituzten lanak sakonago aztertzea.	Kontzeptuzkoak: Bizi funtzioak animalia eta landareetan: nutrizioa, ugalketa eta harremanak.	Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna.
Landareen elikatze-funtzioa ezagutzea.	Prozedurazkoak: Zenbait prozesuren deskribapen ordenatua, animalien elikadura, lore-dun landare baten ugalketa-prozesua eta landareen fotosintesiarena adibidez.	Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.
Landareen erantzunak ezagutzea, harreman funtzioa osatzen dute eta.	Animalia taldeen arteko konparazioa, bizi funtzioak betetzeko moduaren arabera.	Ikasten ikasteko gaitasuna.
Loredun landareen ugalketa funtzioa ezagutzea.	Lore eta zuhaitzak marraztea ikusitako informazioa antolatzeko.	
Izaki bizidun guztiak errespetatzeko ohiturak sendotzea.	Landaren baten eta lore baten atalak benetan eta argazkietan aurkitzea.	
	Jarrerazkoak: Izaki bizidun guztiak errespetatzea.	
	Animali bakoitzaren garrantzia balioestea planetaren bizitzarako.	

14.Taula. 12.saioaren azalpena.

12.saioa: 2013/04/26		
AZALPENA	Azterketa idatzia gaian zehar landu diren edukien barneratze maila aztertzeko.	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
Barneratu dituzten edukiak azalratzea.	Kontzeptuzkoak: Bizi funtzioak animalia eta landareetan: nutrizioa, ugalketa eta harremanak.	Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna. Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna. Norberaren autonomia eta ekimena eta gaitasun emozionala.

Izen-abizena: _____

Data: 2013ko apirilaren 29a

Animaliak eta landareak

1.- Animaliak zer prozesuren bidez egiten dute nutrizio-funtzioa?

✓ Janaria hartzea, Asimilazioa eta elikagaiak erabiltzea.
Hondakinak konparatzea.

2.- Zertan desberdintzen dira animalien eta landareen nutrizio funtzioak?

✓ Landareak bere janaria egiten dute fotosintesiarekin eta animaliak bilatzen dute.

3.- Animalien harreman-funtzioa. Jarri koadroan falta diren hitzak:

1	Zentzumenak	Soinuak, argiak eta formak, usainak, zaporeak, kontaktuak, temperatura hautematen dute.
2	Nerbio sistema	Heltzen zaigun informazioa bidali, interpretatu eta erantzuna agintzen du.
3	Muskulak eta hezurak	Gorputza mugitu edota lekualdatzen du.

4.- Azaldu ondorengo kontzeptuak:

Ugalketa sexuala: Aroa eta emea hartzen duten parte prozesu batean.

Espermatozoidak: Animalia aroa ugaltze-organok
espermatozoidak sortzen dituzte.

Obuluak: Animalia emea ugaltze-organok obuluak
sortzen dituzte.

Polena: Estomiroa lare batena ugaltze-organok
emeean da. Polena alca sortzen du.

ara

5.- Zer desberdintasun dago animalia obiparo eta biparoen artean?

✓ Obiparok arrautzetatik jaizten dira eta biparok
zahelatik.

6.- Ordenatu animala bibiparoen ugaltze-prozesuko hiru etapak:

enbrioiaren garapena

erditzea

ernaltzea

1.- <u>ernaltzea.</u>	2.- <u>enbrioiaren garapena.</u>	3.- <u>erditzea</u>
-----------------------	----------------------------------	---------------------


7.- Azaldu landareek janariak sortzeko, zer substantzia eta nondik hartzen dituzten.

Airetik eguzkia eta karbono dioksidoa eta lurrik ura eta mineralak.

8.- Landareek oxigenoa askatzen dute, baina xurgatu ere egiten dute. Azaldu zergatik.

Animali guztiek bezala landareak ere oxigeno behar dute.

9.- Idatzi lorearen atalak.



10.- Ordenatu landare baten ugalketaren honako fase hauek:

ORDENATU GABE	ORDENATUA
Polinizazioa x	1.- <u>Polinizazioa.</u> 1
Haziak erntzea x	2.- <u>Ernaltzea.</u> 2
Loreak agertzea x	3.- <u>Loreak agertzea.</u> 3
Haziak eta fruituak eratzea	4.- <u>Haziak eta fruituak eratzea.</u> 4
Ernaltzea x	5.- <u>Haziak erntzea.</u> 5
Haziak sakabanatzea x	6.- <u>Haziak sakabanatzea.</u> 6

11. Irudia. Azterketa eredu.

➤ Ekosistemak

15.Taula. 1.saioaren azalpena.

1.saioa: 2013/ 05/07		
AZALPENA	Gaiaren izenburua aztertu, "EKOSISTEMAK", ikasleei hitz horrek ez die ezer esaten eta ez dute aurre-ezagutzarik azaleratzen. "Martetarren bila Huelvan" irakurgaia irakurrita, zenbait ideia sortzen hasten dira eta irakurgai hori oinarri hartuta ikasleei hipotesiak formulatzen utzi, horretarako santillana liburuak eskaintzen dituen galderaz baliatuz:	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
Ikasleek gaiaren inguruan zituzten aurre ideiak ezagutu eta ikasleak gai berriari barneratzea.	Kontzeptuzkoak: Ekosistema Jarrerazkoak: Espazio naturalak errespetatzeko eta kontuz jokatzeko jarrera eta ekosistema berriak ezagutzeko jakinmina.	Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna. Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna. Norberaren autonomia eta ekimena eta gaitasun emozionala.

3 Zer harreman dago Marteren eta Tinto ibaia-
ren artean?

Galderak egiten

1 Díaz doktoreak ekosistema oso arraroa dela
dio.
Zure ustez, zer da ekosistema?

2 Landare edo animalia gehienek ezin dute
inguru honetan bizirik iraun. Aldiz, ur haue-
tako baldintzetara moldatutako bakterioak
bizi dira.
**Zer esan nahi du izaki bizidun bat ekosiste-
mara moldatzeak?**

3 Tinto ibaiko ekosistema Lurreko ekosistema
ugarietako bat da.
**Zer motatako ekosistemak ezagutzen
dituzu?**

12.Irudia. Ikasleen aurrezagutzak ezagutzeko galderak.

Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimendatzen, pentsatzen eta komunikazioaren bitartez.

16.Taula. 2.saioaren azalpena.

2.saioa: 2013/05/10		
AZALPENA	Etxetik gaiarekin erlazionaturik egon zitekeen informazioa, liburuak, materialak ekarri eta materialak komentatu. Aurreko gaian ekarritakoak erabilgarriak ziren eta klasean utzi genituen.	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
Ikasleek ekarritako materialak aztertu motibazio eta pizgarri izan daitezten.	<p>Kontzeptuzkoak: Ekosistema</p> <p>Jarrerazkoak: Espazio naturalak errespetatzeko eta kontuz jokatzeko jarrera eta ekosistema berriak ezagutzeko jakinmina.</p>	<p>Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna.</p> <p>Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.</p> <p>Norberaren autonomia eta ekimena eta gaitasun emozionala.</p> <p>Informazioa eta teknologia digitala tratatzeko gaitasuna.</p>

17.Taula. 3.saioaren azalpena.

3. SAIOA: 2013/05/13		
AZALPENA	<p>Liburuaren 1. ataza ozenean irakurri: ZER DA EKOSISTEMA?</p> <p>Irakurketatik ulertutakoa eta informaziorik garrantzitsuena ahoz komentatu.</p> <p>Irakasleak ikasi beharreko zer zen esatea eta azpimarratzeko eskatzea: <i>“ekosistema leku batek, bertan bizi diren izaki bizidunek eta horren guztiaren artean dauden harremanek osatzen dute”</i></p> <p>Denon artean “ekosistema” definitu eta adibide pare bat idatzi.</p> <p>Eduki garrantzitsuenak indartzeko liburuak eskaintzen zituen zenbait jarduera burutzea.</p>	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
<p>Ekosistemaren ideia hartzea eta haiek osatzen dituzten osagaiak <i>ezagutzea</i>, zabalerak eta mugak.</p> <p>Planetako ekosistema guztien garrantzia eta elkarren menpekotasunaren ideia orokorra hartzea eta <i>babesteko jarrerak</i> garatzea.</p>	<p>Kontzeptuzkoak: Ekosistema</p> <p>Prozedurazkoak: Ekosistema eta hura osatzen duten elementuak deskribatzea</p> <p>Jarrerazkoak: Ekosistemak arriskuan jartzen dituzten ekintzetarako sentsibilitatea eta haiek zaintzen laguntzeko ardura.</p>	<p>Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna.</p> <p>Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.</p> <p>Ikasten ikasteko gaitasuna.</p>

18.Taula. 4.saioaren azalpena.

Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimendatzen, pentsatzen eta komunikazioaren bitartez.

4. SAIOA: 2013/05/14		
AZALPENA	<p>Liburuaren 2. ataza ozenean irakurri: EKOSISTEMETAKO IRAUPENA</p> <p>Irakurketatik ulertutakoa eta informaziorik garrantzitsuena ahoz komentatu.</p> <p>Irakasleak ikasi beharreko zer zen esatea eta azpimarratzeko eskatzea: <i>“Elikagaiak lortzeko izaki bizidun guztiak euren artean eta ingurune fisikoarekin erlazionatzen dira. Izaki bizidun bakoitza berarentzako aproposena den inguru fisikoan moldatu behar da, hau da, ekosistema zehatz batean irauteko eta ugaltzeko behar dituen organo eta portaeren multzoa garatzen ditu.”</i></p> <p>Eduki garrantzitsuenak indartzeko liburuak eskaintzen zituen zenbait jarduera burutzea.</p>	
HELBURUA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
<p>Ekosistemaren ideia hartzea eta haiek osatzen dituzten osagaiak <i>ezagutzea</i>, zabalera eta mugak.</p> <p>Elikagaien zikloa <i>ezagutzea</i> eta <i>deskribatzea</i> ekosistema batean. Izaki bizidunak <i>sailkatzea</i> zikloan daukaten kokapenaren arabera.</p> <p>Egokitzeko ideia hartzea eta izaki bizidunak ekosistemara egokitzeko modu batzuk <i>ezagutzea</i>.</p>	<p>Kontzeptuzkoak: Ekosistema</p> <p>Elikagaien zikloa eta izaki bizidunen sailkapena: ekoizleak, kontsumitzaileak, deskonposatzaileak.</p> <p>Izaki bizidunen moldaera</p> <p>Prozedurazkoak: Elikagaien zikloa eta bertako bizidunak deskribatzea</p> <p>Jarrerazkoak: Espazio naturalak errespetatzeko eta kontuz jokatzeko jarrera.</p> <p>Ekosistemak arriskuan jartzen dituzten ekintzetarako sentsibilitatea eta haiek zaintzen laguntzeko ardura.</p>	<p>Mundu fisikoarekin harremanetan jartzeko gaitasuna.</p> <p>Hizkuntza eta komunikaziorako gaitasuna.</p> <p>Ikasten ikasteko gaitasuna.</p>

Moldiera: Izaki bizidun batetik
 beste batera bizitzeko dituen
 eragarririk.


Adibideak:

Arraina: uretan arnasteko
 zekatzen.
 Hartzaipolarra: urrea eta
 kaina asko.
 Kaktus: arantzen formako
 hostoak ura ez gaitzen.

2013ko maiatzaren 14a
 67or. ARIKETA

② Erleak heraien gara jotzeko.
 Eta orrela gaitzen dute.

13. Irudia. Ariketa adibideak.



14. Irudia. Burututako eskema baten adibidea.

Landareen ugalketari buruzko hipotesiak baieztatu eta landareak ugaltzeko beste moduren bat ezagutzen duten galdetuko zaie. Bi esperimendu proposatu zaie: -Patataren prestaketa egin. - Geranio adaxken prestaketa egin. <i>(Ikus Eranskina X)</i>	Kontzeptuzkoak: Ugalketa asexuala: kimuak eta adaxkak. Prozedurazkoak: Esperimentazio prestaketak egin Jarrerazkoak: Esperimentazioarekiko jakinmina Materialen zainketa eta erabilera egokia	Mundu fisikoa errespetatzeko eta harekin elkarerraginean aritzeko gaitasuna. Autonomia eta ekimen pertsonala. Ikasten ikasteko gaitasuna. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna.

43.Taula. 11.saiorearen azalpena.

11. Galderak birformulatzeko jarduera:		
GU AZTIAK?: “Zerk eragiten ditu aldaketa horiek landareengan?”		
HELBURUAK	<p>Landareek ura nola xurgatzen duten ikusteko esperimenduaren prestaketa egin, margaritak tinta duen ur pote batean jarritz.</p> <p>Landareek eguzki argia behar duten baieztatzeko esperimenduaren prestaketa egin, belar laginak leku argitsuan eta leku ilunean landatuz.</p> <p>Tulipana klasera eraman eta egun batzuetan zehar behatzea zenbait estimuluren aurrean (eguzki argia) aldaketak jasaten dituela ikusteko.</p>	
AZALPENA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
<p>Landareen bizi funtzioei buruzko ezagutzak finkatzeko esperimendazioak egin:</p> <p>Margaritaren prestaketa egin: margaritak tintaren kolorea hartuko du eta ura xurgatzen duela ondorioztatuko dugu.</p> <p>Belarraren prestaketa egin: belarra bi potetxotan ereingo dugu. Bat argitasunean utzi eta bestea iluntasunean, eguzki argia beharrezkoa dela ondorioztatuko dugu.</p> <p>Tulipana behatu eta aldaketez jabetu: eguzkiaren argiaren aurrean aldaketak antzemango dira, itxi eta ireki egiten baita lorea.</p>	<p>Kontzeptuzkoak:</p> <p>Landareen bizi funtzioak</p> <p>Prozedurazkoak:</p> <p>Esperimentazio prestaketak egin</p> <p>Jarrerazkoak:</p> <p>Esperimentazioarekiko jakinmina</p> <p>Materialen zainketa eta erabilera egokia</p>	<p>Mundu fisikoa errespetatzeko eta harekin elkarreaginean aritzeko gaitasuna.</p> <p>Autonomia eta ekimen pertsonala.</p> <p>Ikasten ikasteko gaitasuna.</p> <p>Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna.</p>

44.Taula. 12.saioaren azalpena.

12. Ezagutza garatzeko jarduera:		
NI ADIERAZLE: "Landareen inguruan jakin beharrekoa."		
HELBURUAK	Esperimentaziotik jasotako informazioa eta gida liburuak erabiliz, landareen inguruan genituen informazio taulak osatzeaz bukatu. Taulako informazioa erabiliz landaren baten deskribapen testu bat idatzi informazioa modu idatzian gordetzeko.	
AZALPENEA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
Esperimentaziotik lortutako emaitzak erabiliz landareei buruzko taula osatzeaz bukatuko dute. Gero landare bat aukeratu eta horri buruzko deskribapen testu bat idatziko dute. <i>(Ikus EranskinaVI)</i>	Kontzeptuzkoak: Landareen bizi funtzioak Deskribapen testuak Prozedurazkoak: Hizkuntza bidez ideiak komunikatzea Deskribapen testuak egiteko gaitasunean trebatzea. Jarrerazkoak: Ikaskideen iritziak eta txandak errespetatzea eta onartzea.	Mundu fisikoa errespetatzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna. Autonomia eta ekimen pertsonala. Ikasten ikasteko gaitasuna. Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala. Gaitasun soziala eta herritartasuna.

45.Taula. 13.saiorearen azalpena.

13. Galderak birformulatzeko jarduera:		
GU IGARLE: "Zein erlazio dago inguru bateko izaki bizidunen artean?"		
HELBURUAK	<p>Ega ibaian bizi daitezkeen zenbait animalia-aren argazkiak irudi eskematiko batean kokatzea eta haien arteko harremanak gezitxo bidez irudikatzea, haien arteko lotura posibleen inguruan hipotesiak egiteko.</p> <p>Sortu diren loturen inguruan hausnarketak egin (taula bat osatuz) eta talde handian eztabaidatu izaki bizidunen artean dauden harremanak eta horien zergatiak aurkitzeko.</p> <p>Ezagutza garatzeko adibide ezberdin gehiagorekin ariketa errepikatu (oraingoan cmap-tools programa ordenagailuan erabilita) eta animalia horien ezaugarri fisiologiko eta moldaeren zergatia ahoz emateko gai izatea.</p> <p>Ikasitako ezagutzak aplikatuz izaki bizidun bat hautatu eta horri buruzko deskribapen testu bat idatzi garatutako ezagutza azaleratzeko.</p>	
AZALPENA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNA
<p>Ega ibaiko eskema bat emanen zaie ikasleei eta haiek izaki bizidunak marraztu beharko dituzte. Gero, izakien artean dauden erlazioak kontutan hartuz gezitxoak marraztu beharko dituzte. Gezitxo bidez zergatia azaldu beharko dute jarraian, horretarako, taula bat bete beharko dute.</p> <p><i>(Ikus Eranskina XI)</i></p> <p>Ondoren, sare gehiago eraiki irakasleak eskainiko dituen argazki berriekin. Teknologia berrien erabilera sustatzeko sare berri horiek cmaptools programa erabiliz berreraikiko dituzte ordenagailuan.</p>	<p>Kontzeptuzkoak:</p> <p>Izaki bizidun funtzioak</p> <p>Deskribapen testuak</p> <p>Prozedurazkoak:</p> <p>Izaki bizidunak marraztea</p> <p>Erlazionatzeko gaitasunak garatzea</p> <p>Cmaptools programaren erabilera</p> <p>Deskribapen testuen produkzioaren garapena</p> <p>Jarrerazkoak:</p>	<p>Mundu fisikoa errespetatzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna.</p> <p>Autonomia eta ekimen pertsonala.</p> <p>Ikasten ikasteko gaitasuna.</p> <p>Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna.</p> <p>Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala.</p> <p>Gaitasun soziala eta herritartasuna.</p>

<p><i>(Ikus Eranskina XII)</i></p> <p>Bukatzeke izaki bizidun bat hautatu eta deskribapen testu bat idatziko dute hainbat irizpide jarraituz.</p> <p><i>(Ikus Eranskina XIII)</i></p>	<p>Teknologia berriekiko interesa.</p>	
---	--	--

46.Taula. 14.saioaren azalpena.

<p>14. Aplikazio jarduera:</p>		
<p>GU IRUDIKATZAILE: "Izaki bizidunak eta euren funtzioak"</p>		
<p>HELBURUAK</p>	<p>Ikasitako ezagutzak erabiliz animalia eta landareen antzekotasunak azpimarratzen dituen mural handi bat egin eta klasean jarri denontzat ikusgarri egoteko.</p>	
<p>AZALPENA</p>	<p>EDUKIAK</p>	<p>OINARRIZKO GAITASUNA</p>
<p>Denon artean mural bat osatuko dute animalia eta landareen antzekotasunak azpimarratzeko.</p> <p><i>(ikus Eranskina XIV)</i></p>	<p>Kontzeptuzkoak:</p> <p>Izaki bizidunen funtzioak</p> <p>Prozedurazkoak:</p> <p>Ideiak antolatzeke gaitasuna garatzea</p> <p>Jarrerazkoak:</p> <p>Lan kooperatiboa</p>	<p>Mundu fisikoa errespetatzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna.</p> <p>Autonomia eta ekimen pertsonala.</p> <p>Ikasten ikasteko gaitasuna.</p> <p>Arte eta kultur gaitasuna.</p> <p>Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna.</p> <p>Gaitasun soziala eta herritartasuna.</p>

47.Taula. 15.saioaren azalpena.

15. Aplikazio jarduera:		
GU IRUDIKATZAILE: "Ega ibaiko maketa"		
HELBURUAK	<p>Ikasitako ezagutzak erabiliz Ega ibaiko ekosistemari buruzko maketa egin, ikaskuntza kooperatiboa landuz, denontzat ikusgarri egoteko.</p> <p>Eztabaida baten bitartez ekosistema zaintzeko hartu behar ditugun neurriak adostu denok modu aktiboan ingurunearen zainketan parte hartzeko.</p> <p>Adostutako neurriak kartulina ikusgarrietan itsatsi eta ekosistemaren maketaren ondoan jarri, pasabidean, guztientzat ikusgarri geratzeko eta ekosistemaren zainketaz ardurak sortzeko.</p>	
AZALPENA	EDUKIAK	OINARRIZKO GAITASUNA
<p>Maketa lauko taldeetan eginen dute. Horretarako behar dituzten materialak adostuko dituzte. Gero, eztabaida bat egingo dute talde handian, ekosistema zaintzeko hartu behar diren neurrien inguruan. Bukatzeko eztabaidan adostutako ideiak kartulina handitan idatzi modu erakargarri batean eta dena pasabidean jarri, eskolako ikasleentzat ikusgarri egon dadin.</p> <p><i>(ikus Eranskina XV)</i></p>	<p>Kontzeptuzkoak:</p> <p>Ega ibaiko ekosistema Ekosistemaren zainketa</p> <p>Prozedurazkoak:</p> <p>Material ezberdinak manipulatur maketa sortzea</p> <p>Inguruaren zainketarako neurriak adostea</p> <p>Hizkuntza bidez ideiak adierazteko gaitasuna garatzea</p> <p>Kartel txukun eta erakargarriak produzitzea</p> <p>Jarrerazkoak: Lan kooperatiboa Inguruarekiko zainketa jarrera</p>	<p>Mundu fisikoa errespetatzeko eta harekin elkarreaginean aritzeko gaitasuna.</p> <p>Autonomia eta ekimen pertsonala.</p> <p>Ikasten ikasteko gaitasuna.</p> <p>Arte eta kultur gaitasuna.</p> <p>Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna.</p> <p>Gaitasun soziala eta herritartasuna.</p>

5.3. Ebaluazioa:

- Autoebaluazioa. Ikasleek autoebaluazio taulak beteko dituzte, bai gaiaren hasieran, erdialdean, baita bukaeran ere. Honen helburua bere ezagutza eta lanaren aurrerapena eta taldean lan egiteko moduari buruz hausnartzea eta hau erregistratzea izanen da.
- Lanarekiko jarrera.
- Banakako lana behatu: erregistroak, behatutakoaren notatxoak.
- Talde lanen erregistroak.
- Ahozko probak eta proba idatzia.

Ikasleen autoebaluazio taulak:

Ikasleek izaki bizidunei buruz dtuzten ezagutzei buruzko hausnarketa bat egiteko taula eskainiko diegu. Sekuentziaren amaieran taula berdina azalduko zaie, haien ezagutzaren garapenaren inuguruan hausnarketa egiteko.

48.Taula. Ikasleen autoebaluazioa

HASIERAKO EBALUAZIOA	E.D.	Z.B.	B.	A.B.
Badakizu zer behar duten bizitzeko izaki bizidunek?				
Badakizu zenbat urtez bizi daitezkeen izaki bizidunak?				
Badakizu landareak bizirik dauden?				
Hala bada, badakizu landareak hil daitezken?				
Badakizu nola jaiotzen diren izaki bizidunak?				
Izaki bizidunek beren bizitzan zehar aldaketak dituzten?edo beti berdin daude?				
Izaki bizidunak edozein lekutan bizi daitezke edo bakoitzak leku zehatz bat behar du bizitzeko?				
Leku berdin bateko izaki bizidunen artean erlazioren bat dago?				

E.D. Ez dakit

Z.B. Zerbait badakit

B. Badakit

A.B Azaltzen badakit

Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimendatzen, pentsatzen eta komunikazioaren bitartez.

49.Taula. Ikasleen autoebaluazioa

BUKAERAKO EBALUAZIOA	E.D.	Z.B.	B.	A.B.
Badakizu zer behar duten bizitzeko izaki bizidunek?				
Badakizu zenbat urtez bizi daitezkeen izaki bizidunak?				
Badakizu landareak bizirik dauden?				
Hala bada, badakizu landareak hil daitezken?				
Badakizu nola jaiotzen diren izaki bizidunak?				
Izaki bizidunek beren bizitzan zehar aldaketak dituzten?edo beti berdin daude?				
Izaki bizidunak edozein lekutan bizi daitezke edo bakoitzak leku zehatz bat behar du bizitzeko?				
Leku berdin bateko izaki bizidunen artean erlazioren bat dago?				

Irakaslearen erregistro taulak:

Ebaluatzeko zenbait item proposatzen dira: kontzeptu zientifikoei, hipotesien formulatzeari, prozeduren garapenari, helburuak ezagutzeari, lanaren aurkezpenari eta ondorioak lortzeari bideratuak. Item horiek kalibratuta daude, lorpen mailaren arabera ikasle bakoitzak puntuazio bat jasoko du:

3+ : BIKAIN ARI DA.

3: OSO ONGI ARI DA, BERE MAILAN.

2: BERE MAILA BAINO PIXKA BAT BEHERAGO DAGO, PROZESUAN.

1: HOBETU BEHAR DU, MAILA BAXUA DAUKA.

50.Taula. Irakaslearen erregistro taula.

	3+	3	2	1
Kontzeptu zientifikoak	Ikasgelan oinarrizko kontzeptu zientifikoak erabiltzen ditu	Oinarrizko kontzeptu zientifikoak entzutean ulertzen ditu eta batzuk erabiltzen ditu.	Zalantzak agertzen ditu oinarrizko kontzeptu zientifikoak erabiltzen direnean	Ez ditu oinarrizko kontzeptu zientifikoak menperatzen
Hipotesien formulatzea	Zehatza eta argia da, ikasitakoan oinarritua	Logikoak dira eta ezagutza orokorretan oinarritzen da, baina ez du ikasitakoa kontutan hartzen	Hipotesia egiten du, baina ezagutza erroredun batean oinarritua.	Ez du hipotesirik egiten.
Esperimentazioa (prestaketa)	Pausu guztiak argi ditu eta azaltzeko gai da.	Pausuak orden logiko batean egiten ditu baina ez dira klasean landutakoak	Pausu batzuk jarraitzen ditu baina ez du argi zein den prozedura	Ez du argi egin behar dena.
Esperimentazioa (behaketa)	Behaketa egunero egin du eta eskatutako taula eta oharrak hartu ditu.	Behaketa egunero egin du, baina ez ditu beti oharrak hartu.	Behatu du, baina ez du jarraipen bat egin.	Ez du behaketan parte hartu.
Galderak egitea. Helburuak ezagutzea.	Oso argi du zein den lortu behar duen helburua esperimentazioan.	Badirudi badakiela zein den bere helburua, baina ez daki hitzez oso argi azaltzen.	Ez du guztiz argi zein den bere helburua esperimentazioan dabilenean	Ez daki zertarako esperimentatu behar duen eta ez du motibaziorik lan egiteko.
Aurkezpena. antolamendua	Lana txukun aurkezten du eta fitxa eta lan guztiek badituzte parte guztiak (izenburua...)	Saiatzen da txukuntasuna eta ordena mantentzen, nahiz eta beti ez lortu.	Saiatzen da txukuntasuna mantentzen, baina ordena ez da egokia, zenbait parte zehaztea falta da.	Ez du txukuntasuna mantentzen, zirriborroak, zikina...
Ondorioa	Badaki adierazten esperimentaziotik ikasi duena eta hipotesiarekin lortutako emaitzak kontrastatzen.	Badaki esperimentaziotik ikasi duena adierazten baina kostatzen zaio hipotesiarekin alderapenak egiten.	Ikasitakoa islatzen saiatzen da baina asko kostatzen zaio.	Ez du ikasitako islatzen.

Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimentatzen, pentsatzen eta komunikazioaren bitartez.

Ikasleei eginen zaien azterketa idatzia:

1. Eman arrazoiak landareak izaki bizidunak direla argudiatzeko.
2. Azaldu oiloaren eta txakurraren ugalketaren artean ikusten dituzun antzekotasunak eta ezberdintasunak.
3. Esan hurrengo izaki bizidunetatik zeintzuk bizi daitezkeen Urbasako mendizerran eta zeintzuk ez, arrazoitu zure erantzuna.

ONDORIOAK

Hezkuntzan aldaketa handiak eman dira, eta ematen ari dira denbora pasatzen den heinean. Horiek guztiak gizartearen aldaketa politiko, sozial, ekonomiko eta ideologikoei lotuta daude. Hori dela eta, lan honetan egin den proposamenak aldaketa bat eskaintzen du, modu tradizionalago batean lan egitetik, gaur egun pilpilean dauden teoriei jarraituz, modu aktiboago batean lan egitera, ezagutza kontzeptualaz gain gaitasunak eskuratzea helburu izanik. Modu honetan ikasleak eguneroko bizitzarako ezagutza funtzionalak eskuratuko ditu.

Lan hau burutzen hasi nintzenean, nire helburuak oso argiak eta zehatzak ziren, eta horrela azaleratu ditut laneko 2. puntuak. Helburu horiek betetzeko lan jarraia egin behar izan dut zenbait asteetan zehar. Lehenik eta behin, aurreko ikasturtean, 4. mailako Ingurune natural, sozial eta kulturalaren ezagutza ikasgaiaren egindako lan guztia errebisatu behar izan dut. Urtebetean egindako lana handia izan zen, eta gai asko jorratu ziren, horregatik, gaien artean 2 hautatu nituen aztergai moduan. Izaki bizidunak eta haien arteko harremanaren aukeraketa berez gai mamitsua delako, baina, haren lanketan hutsune asko aurkitu ditudalako egin dut. Argi neukan, iaz izan nuen lan egiteko modua ez zela egokia, ez behintzat egokiena, eta hobetu behar zela, baina oso zaila suertatzen zitzaidan inongo laguntzarik gabe metodo berriak bilatzea. Horregatik, zientziaren irakaskuntzaren inguruan aurkitu ditudan erreferentzia bibliografiko ugariak aztertu ditut, gaur egungo zientzien irakaskuntzaren inguruan marko teoriko sendo bat egiten lagundu didatenak izan dira. Marko teorikoa eskuetan izanda, eta hainbat eta hainbat autoreren kasuak eta ereduak ikusita, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleentzat zientzien ikaskuntza-irakaskuntzarako proposamen didaktiko bat egin dut. Proposamen berriak Nafarroako legea du abiapuntutzat: batetik, aniztasunaren trataera erregulatzen duen 93/2008ko ekainaren 13ko Orden Forala eta bestetik, Lehen Hezkuntzako kurrikulua zehazten duen 24/2007ko martxoaren 19ko Dekretu Forala. Dekretu Foral honek zehazten digu zeintzuk diren landu beharreko Oinarritzko zortzi Gaitasunak eta zeintzuk diren Ingurune natural, sozial eta kulturalaren Ezagutzaren ikasgaiaren bitartez landuko ditugun Helburu Orokorrak baita bizidunei dagozkien edukiak ere.

Hortik abiatuz, hamabost saiotan banatutako sekuentzia didaktiko bat proposatu dut, jarduera bakoitzak bere azalpena, helburuak eta edukiak dakartza. Bukaeran, sekuentzia didaktikoak bere ebaluazio proposamena dakar berarekin, ebaluazio mota horretan ikas-irakaskuntza prozesua bere osotasunean ebaluatzen delarik. Horretarako irakasleak ez ezik ikasleek ere ebaluazio prozesuaren parte izan behar dute.

Proposamen berrian aurreko ikasturtean izan ziren hutsuneak gainditu nahi dira, batez ere abstrakzioetik eta testu liburuaren erabileratik urruntzea eta naturaren ezagutza errealtatetik abiatuz lantzea. Ikasleek ingurune naturalareki harremantzeko eta bertan gertatzen diren prozesu eta fenomenoak ulertzeko modurik hoberena ikasleek aldaketa horiek zuzenean bizitzea baita. Modu horren, ikasleek ingurunean autonomoki ibiltzen jakinen dute eta bere inguruan agertzen diren arazoak hautemateko, behatzeko, aztertzeke, datuak baieztatzeke, hauei irtenbidea bilatzeko eta ondorioak lortzeko gai izanen dira. Laburtuz, pentsamendu zientifiko-teknikoa garatu nahi da ingurutik jasotzen den informazioa erabiliz, predikzioak egiteko eta erabakiak hartzeko. Era berean, naturarekin kontaktuan egonda, gizakion presentziak ingurunean duen eraginaren jabe izanen dira eta honek, gure hobe beharrez, bai

ingurunea bai gainontzeko izaki bizidunak errespetatzen eta baloratzen ikastea ekarriko du ondorio gisa.

Esan bezala, aurreko ikasturteko hutsune nabarmenetako bat testu liburuaren gehiegizko jarraipena izan zen. Azken finean testu liburuekin zaila izan ohi da lan esperimentalak eskatzen dituen gaitasunak lantzea, hala nola, arazoak identifikatzea, galderak planteatzea eta erantzunak bilatzea. Azken finean, hori guztia liburuak egina dakar, ikasleen lan bakarra informazioa bilatzea eta erabiltzea da. Irakasle garen einen, testu liburuek duten esperimentazio faltaz ohartu behar gara eta hori gainditzeko beste errekurtsio didaktiko batzuk bilatu. Oso garrantzitsua da ikerketari esparrua uztea, errealitateetik abiatuz lan egitea. Gainera ez dugu ahaztu behar, askoz motibagarriagoa dela hurbileko errealitatearekin zuzenean lan egitea, errepikakortasunetik aldentzen baita eta ikasleen jakinmina pizten du galdera eta erronken plateamenduaren bidez.

Horretarako metodologia aktiboak erabiltzea beharrezkoa da. Metodologia aktiboak, ikaskuntza kooperatiboan lanketari bide ematen dio. Ikaskuntza kooperatiboak inplikazio handia eskatzen du, ez bakarrik irakaslearen eskutik, baita ikasleen eskutik ere. Ikasleak bere ikaskuntzaren jabe izatera pasatzen dira, beraz haien inplikazioa ezinbestekoa da ikaskuntza esanguratsu, erreal eta funtzionala lortzeko. Ikaskuntza kooperatiboa gizakion interkazioan oinarritzen da, horregatik, nahitaez, ikasleek gaitasun sozialak eta errespetua, kolaborazioa eta ikaskideen arteko laguntza bezalako jarrerak garatu behar dituzte. Azken finean, jarrera eta baloreek hezkuntza prozesua borobiltzen dute. Ez dugu ahaztu behar beste eduki motak bezala irakasleak eta ikasleak daitezkeela, baina horretarako testu liburua ez den beste bideak bilatu behar dira, izan ere, jarrerak pertsona eta egoerei aurre egitean garatzen dira eta testu liburuek oso aukera gutxi eskaintzen digute esparru honetan.

Hizkuntzaren gaitasunaren garapenari dagokionez, pertsonen garapenean zehar hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna pixkanaka eskuratzen da, baina hizkuntza bidez komunikatzeko maila on bat lortzeko (bai ahoz baita idatziz ere) espezifikoki landu behar da hizkuntza, are gehiago, eremu misto batean (euskara kalean gutxitan entzuten den eremu batean) bizi diren ikasleek euskarazko maila on bat izatea lortu nahi badugu. Aurreko ikasturteko lanean ahozkotasanari garrantzia ematen saiatu ginen eta denboraren %20 eta %13a eskaini genion ahozkotasanari gai bakoitzean. Kontua da, normalean, liburuak emandako informazioa komentatzea izaten zela elkarriketaren oinarria, oso gutxitan erabiltzen genuen denbora hori ikasleen aurre-ezagutzak, kezak eta galderak komentatzeko. Bestalde, zenbaitetan, ikasleek haien testu idatziak sor zituzten ahalegindu ginen, liburutik informazioa hitzez hitz kopiatu gabe, haien produkzio idatziak egitea, lan neketsua izan zen hori haientzat. Halere, lantzen jarraitu beharreko zerbait da, azken finean, produkzio onak lortzeko behin eta berriz saiakerak egin behar dira, eta hori testu liburuari jarraituz ez da lortzen. Testu liburuek eskaintzen dituzten idatzeko saiakerak oso errepikakorrek dira: hutsuneak bete, esaldiak osatu, eskemak osatu, eta orokorrean liburuak eskaintzen duen testuan dago informazio guztia. Proposamen berrian hizkuntzarako gaitasunak ere garrantzi handia du, ahozkotasanak zein testu idatziak burutzea zeregin garrantzitsuak dira, bai taldekideen artean dauden iritziak eta hipotesiak emanez, baita talde handiko eztabaidatan argudioak emanez ere. Bukatzeko, lortutako emaitzen ahozko azalpena nahiz testu motzen bidezko idatzizko azalpena eskatzen da.

Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimentatzen, pentsatzen eta komunikazioaren bitartez.

Aipatu bezala, metodologia aktibo baten alde gaude, zeineta ikaslearen parte hartze aktiboa premiazkoa ikusten den. Horrek esan nahi du ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren jabe izan behar duela, baita ebaluazioan ere. Ebaluazioa, irakaskuntza-ikaskuntza prozesu guztietan agertu beharreko zerbait da, prozesuaren parte baita, edozein prozesu aztertu behar da egon diren aldaketen emaitzak (hobekuntzak, garapenak eta hobetu beharrekoak) jasotzeko beharrezkoa delako. Planteatzen den ebaluazio mota da gakoa. Aurreko ikasturtean egindako ebaluaketan kontzeptuen eskurapena definizio eta deskribapenen bidez azaleratzea zen gehien baloratzen zena. Horrez gain, eguneroko lana egin egotea jarrera arduratsua eta partehartzailea baloratu ziren. Baina ez genion inoiz autoebaluazioari erreparatu. Lan honetan egiten den proposamenaren autoebaluazioak garrantzi handia du. Honek eskainiko baitie ikasleei egin eta ikasi dutenaren jabe izateko aukera eta haien buruari hausnarketak egiteko ohitura hartzen laguntzen die, aldi berean autonomia eta haiengan ziurtasuna lortzen dutelarik. Horrez gain, irakasleak ere ebaluatuko du, baina ez dio bukaerako emaitzari soilik garrantzia emanen, prozesu osoaren garapenari erreparatuko dio, baita honen bukaeran eskuratu diren gaitasunei, eta hauek beste eremu zabalagoetan adierazteari ere. Ebaluazioa egiteko erregistro taulak beteko dira prozesu osoan zehar, bai irakaslearen partetik, baita ikasleen partetik ere, ebaluazioa bion artean konpartituko den zerbait izanen da. Hala ere, bukaeran azterketa idatzi bat egonen da. Baina hau ez da gaindituko kontzeptuak memoristikoki ikastearekin bakarrik, azterketako galderei erantzun ahal izateko beharrezkoa izanen da saio guztietan zehar parte-hartze aktibo bat izatea, esperimentatutako egoeretan ondorioak lortzea eta sortutako egoeren artean eskuratutako ezagutzak erlazionatzen jakitea.

Azpimarratzekoa da proposamen berriak errealitatekin abiatuz ezagutza garatzeko apustu egiten duela, horretarako ingurunearekin harremanetan lan egitea proposatzen du, ikasleak bere inguruko fenomeno eta gertaerak azter ditzan jakintza garatzeko. Aurreko ikasturtean, Ega ibaira ateraldia burutu genuen, ateraldi horrek ikasitako edukiak praktikan jartzea ahalbidetu zigun. Horrez gain, ikasleak hurbil zuten ekosistema urtarrarekiko eta bertako bizidunekiko jakinmin eta errespetu jarrerak garatu zituzten. Egiten den proposamen berrian, ateraldiak beste helburu bat du. Suertatu diren arazoei eta erantzun beharreko galderei erantzunak emateko bidea da ateraldia, errealitatearen behaketatik erantzunak jasotzea da helburua, horrez gain haien inguruarekiko jakimni eta errespetu jarrerak ere lantzeko balio duelarik.

Prozesu guztia eta gero, esan dezakegu, Gradu Bukaerako Lan honek eskatzen zituen kompetentziak eskuratu ditudala, izan ere, testu zabalak landuz dokumentatu behar izan dut, batez ere nire ezagutza bi eremutan garatzeko. Batetik, metodologia aktibo eta kooperatiboen eremuan, eta bestetik, zientziaren kontzepzio berrien inguruan, pentsatzea, esperimentazioa eta komunikatzea oinarri dituen. Honi esker, proposamen berritzaile bat egiteko aukera izan dut, ikasleek ez bakarrik ezagutza zientifikoak eskuratzea lortzeko, baizik eta zientziaren ikaskuntzaren bitartez pertsona integral modura hezteko posible egiten duena.

ERREFERENTZIAK

- Bell, B., & Freyberg, P. (1991). El lenguaje en la clase deficiencias. *La enseñanza de las Ciencias Naturales en la escuela primaria*, 63.
- Brunner, J. J., & Tedesco, J. C. (2003). La educación al encuentro de las nuevas tecnologías. *Las nuevas tecnologías y el futuro de la educación. IIFE, UNESCO. Buenos Aires: Septiembre Grupo Editor.*
- Cachapuz, A. F., & de Fátima Paixao, M. (1999). La enseñanza de las ciencias y la formación de profesores de enseñanza primaria para la reforma curricular: de la teoría a la práctica. *Enseñanza de las ciencias: revista de investigación y experiencias didácticas*, 17(1), 69-78.
- Cañal, P., Díaz, J. E. G., & Porlán, R. (1991). *Ecología y escuela*. Laia.
- Cañal, P. (1991) Las concepciones de los alumnos y alumnas sobre la nutrición de las plantas verdes. *Investigación en la Escuela* 13, 97-113.
- Cañal, P. (1999) Photosynthesis and 'inverse respiration' in plants: An inevitable Misconception. *International Journal of Science Education* 24(7), 681-699.
- Cañal, P (2004) Las plantas ¿fabrican sus propios alimentos? Hacia un modelo escolar alternativo sobre la nutrición de las plantas. *Alambique* 42, 55-71.
- Cañal, P. (2005). *La nutrición de las plantas: enseñanza y aprendizaje*. Madrid: Síntesis.
- Coll, C. (1999). *El constructivismo en el aula* (Vol. 111). Graó.
- De la Torre, A. O., de Pro Bueno, A., & Ros, A. C. (2003). *Enseñar ciencias* (Vol. 176). Grao.
- De la Torre, S. (1995). *El error como estrategia didáctica*. *Revista estudios pedagógicos*, 21, 5-19.
- Díaz Barriga, F., & Hernández, G. (2010). Estrategias docentes para un aprendizaje significativo. *Una interpretación constructivista*, 2.
- Driver, R. (1988). Un enfoque constructivista para el desarrollo del currículo en ciencias. *Enseñanza de las Ciencias*, 6(2), 109-120.
- Driver, R.; Squires, A.; Rushworth, P. y V. Wood-Robinson (1999). *Dando sentido a la ciencia en secundaria. Investigaciones sobre las ideas de los niños*. Madrid: Visor.
- Garrido, M. y Martínez, C. (2009). ¿Qué enseñar sobre los seres vivos en los niveles educativos iniciales? *Aula de innovación educativa*, 183-184, 34-36.

- Giac, (2005). Grupo de interés en aprendizaje cooperativo. ICE, UPC. http://giac.upc.es/PAG/GIAC_CAS/giac_que_es.htm (Consultado el 14 de julio de 2011).
- Giordan, A. (1985). Interés didáctico de los errores de los alumnos. *Enseñanza de las Ciencias*, 3(1), 11-17.
- García Rovira, M.P. (2005). Los modelos como organizadores del currículo en biología. *Enseñanza de las Ciencias* Número Extra. VII Congreso, 1-6.
- Giordan, A., Raicharg, D., Drouin, J.M., Gagliardi, R., & Canay, A. M. (1988). *Conceptos de Biología. 1. La respiración. Los microbios. El ecosistema. La neurona* (Vol. 1). Barcelona: Labor.
- Gómez Galindo, A., Sanmartí, N., & Pujol, J. (2007). Fundamentación teórica y diseño de una unidad didáctica para la enseñanza del modelo ser vivo en la escuela primaria. *Enseñanza de las Ciencias*, 25(3), 325-340.
- Gracia, Á. L. C., de la Gándara, M., Calvo, J. M., Peña, M. B. M., Gil, M. J., Ibarra, J., & de Pablos, J. A. (2012). Expectativas, necesidades y oportunidades de los maestros en formación ante la enseñanza de las ciencias en la Educación Primaria. *Enseñanza de las ciencias: revista de investigación y experiencias didácticas*, 30(3), 155-176.
- Harlen, W. Aprendizaje y enseñanza deficiencias basados en la indagación. *MEJORAMIENTO ESCOLAR EN ACCIÓN*, 33.
- Harlen, W. (1998). *Enseñanza y aprendizaje de las ciencias* (Vol. 9). Ediciones Morata.
- Herrera de la Torre, A. M. LA CIENCIA Y LA EDUCACIÓN CIENTÍFICA. *REVISTA DIGITAL CIENCIA Y DIDÁCTICA*, 86.
- Hoyo García, C. (2001). Experimentar pensando, pensar para experimentar. *La experimentación en la enseñanza de las ciencias*, 43.
- Izquierdo, M., & Rivera, L. (1999). La estructura y la comprensión de los textos de Ciencias. *Alambique. Didáctica de las Ciencias Experimentales*, 4(11), 24-33.
- Jensen, E. (2010). *Cerebro y aprendizaje. Competencias e implicaciones educativas*. Madrid: Narcea.
- Justi, R. (2006). La enseñanza de ciencias basada en la elaboración de modelos. *Enseñanza de las Ciencias*, 24(2), 173-184.
- Knut, W. (2000). *La educación en Centroamérica: Reflexiones en torno a sus problemas y potencial*. Recuperado de

-
- http://ca2020.fiu.edu/Themes/Knut_Walter/Walter.pdf
 - Miranda, F. D. P. R., de las Heras, M. Á., Pérez, R. R. F., & de León, P. C. (2014). El conocimiento escolar sobre los animales y las plantas en primaria: Un análisis del contenido específico en los libros de texto. *Revista Electrónica de Enseñanza de las Ciencias*, 13(1), 97-114.
 - Osborne, R., & Freyberg, P. (1998). *El Aprendizaje de las ciencias: implicaciones de las "ideas previas" de los alumnos* (Vol. 121). Narcea Ediciones.
 - Pimienta Prieto, J. H. (2008). *Constructivismo, Estrategias para aprender a aprender*. México, Pearson Educación.
 - Pujol, RM (2007). Didáctica de las ciencias en la Educación Primaria. *Síntesis*. Madrid.
 - Sanmartí, N., Izquierdo, M., & García, P. (1999). Hablar y escribir. Una condición necesaria para aprender ciencias. *Cuadernos de pedagogía*, (281), 54-58.
 - Sanmarti, N., Simón, M., & Márquez, C. (2006). La evaluación como proceso de autorregulación: diez años después-.. *Situación*, 100, 1.
 - Sanmarti, N. (2008). Contribuciones y desafíos de las publicaciones del área de educación en ciencias en la construcción y consolidación de la identidad del área: la experiencia de la revista Enseñanza de la Ciencias. *Enseñanza de las Ciencias*, 26, 301-10.
 - Solé, I., & Coll, C. (1993). Los profesores y la concepción constructivista. *El constructivismo en el aula*, 7-23.
 - Tedesco, J. (2003). *Los pilares de la educación del futuro*. En: Debates de Educación. Barcelona. Fundación Jaume Bofill. Recuperado de <http://www.uoc.edu/dt/20367/index.html>
 - Tilló, T., Busquets, L., & Fernández, M. (1999). El Proyecto Ciencia 6-12. Descubrir las Ciencias experimentando. *Alambique: Didáctica de las Ciencias Experimentales*, 2(3), 85-93.
 - Tort, M. R., Márquez, C., & Sanmartí, N. Las preguntas de Los alumnos: una propuesta de análisis.
 - Urones, C., Escobar, B., & Vacas, J. M. (2013). Las plantas en los libros de Conocimiento del Medio de 2º ciclo de primaria. *Revista Eureka sobre Enseñanza y Divulgación de las Ciencias*, 10(3), pp-328.
 - Watson, J. R. (1994). Diseño y realización de investigaciones en las clases de Ciencias. *Alambique: Didáctica de las Ciencias Experimentales*, 1(2), 57-65.

ERANSKINAK

ERANSKINA I

2012-2013. IKASTURTEKO INGURUNeko SAIOEN BANAKETA:

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
E	RRE	KRE	O	A
Ingurune ni talde osoarekin				
BAZ	KAL	OR	DU	A
	Ingurune: 2 TDAH + arazo emozionalak zituen ikaslea Ptarekin joaten ziren		Ingurune: atzerapen orokorra zuen ikaslea LOGOPEDA. 6-8 ikasle 4.mailako tutorearekin	Ingurune: atzerapen orokorra zuen ikaslea PT arekin ateratzen zen.

PROPOSAMEN DIDAKTIKO BERRIAREN ARABERA INGURUNE SAIOEN BANAKETA:

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
E	RRE	KRE	O	A
Ingurune ni talde osoarekin				
BAZ	KAL	OR	DU	A
	Ingurune: talde osoa Ptaren laguntzarekin		Ingurune: atzerapen orokorra zuen ikaslea LOGOPEDA arekin beste ikasle guztiak ni eta 4.mailako beste tutorearekin	Ingurune: atzerapen orokorra zuen ikaslea PT arekin ateratzen zen. PTa klase barruan geratzea.

Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimendatzeko, pentsatzeko eta komunikazioaren bitartez.

ERANSKINA II

ANIMALIEN BIZI FUNTZIOAK

1 IZAKI BIZIDUNA	2 IZAKI BIZIDUNA	3 IZAKI BIZIDUNA	4 IZAKI BIZIDUNA
NUTRIZIOA:			
JAN			
Zer?			
Nondik?			
ARNASA			
Nondik?			
HONDAKINAK KANPORATU			
Nondik?			
HARREMANAK			
Zentzumen organorik badu?			
Zeintzuk?			
UGALKETA			
Nola ugaltzen da?			

ZETA BELDARRA

Zetarra (*Bombyx mori*) intsektu edo zomorro baten larba da, ekonomikoki garrantzia handia duena, zetaren ekoizlea baita. Txinaren iparraldekoa da jatorriz, eta bere jaki bakarra marugatze hostoak dira.

Zetarrak zeta-hariz egiten du bere oskola, 300 eta 900 metro bitarteko zeta hari bakar batez.

Zetarra jatun handia da. Marugatze hostoak etengabe jaten ditu, gau eta egun. Ondorioz, oso arin hazten da. Buruaren kolorea iluntzen denean, mudatzeko garaia heltzen zaio. Lau bat mudaren ondoren, gorputzak kolore horixka hartzen du, eta azala tenkatu egiten zaio. Orduantxe hasten da bere burua zetazko oskolaz ezkututzen.

Beldarrak zetazko oskola jan egiten du bertatik ateratzeko. Horretarako, zeta hari preziatua txiki-txiki egiten du, ezertarako balio ez duela utziz. Hori ekiditeko, ura irakiten jarri eta bertara botatzen dira oskolak. Horrek zetarra hiltzeaz gain, oskola osatzen duen haria ateratzea errazten du. Zetarra bera jan ere egiten da.

Zomorro heldua zeta ekoizteko hazi da, eta ez da hegan egiteko gauza. Zeta-tximeleta edo Marugatze-tximeleta deitzen zaio.



menak naturarer





Itxaso

ZETARRAREN BEHAKETA:

EGUNA:

ZETARRAREN LUZEERA:

KOLOREA:

JATEKO EMATEN DIOGUN HOSTO KANTITATEA:

Zer egiten du putz egiten badiogu?

Bustitzen badugu?

Bonbila batekin berotasuna ematen badiogu?

Ukitzen badugu?

ANTZEMATEN DITUGUN ALDAKETAK:

IRUDIA:



DATUEN ANALISIAREKIN ONDORIO TESTU BAT IDATZI.

ERANSKINA IV



ANIMALIEN UGALKETA

Irakur ezazu arretaz hemen beheko testua, ondoren kontzeptu-mapa bat osatu beharko duzu eta.

Animalia batzuen ugalketa asexuala da. Horrek esan nahi du sexu ezberdineko animalien arteko harremanik gabe ugalketa daitezkeela. Adibidez, itsas izarra; animalia hori bitan zatitzen bada, zati bakoitzetik izar berri bat sor daiteke.



Ugalketa asexuala

Baina beste animalia askorena, berriz, ugalketa sexuala da. Ugalketa mota honetan arraren eta emearen arteko harremana ezinbestekoa da. Animalia arrak eta emeak, ugalketa organo ezberdinak izaten dituzte. Arrak espermatozoideak sortzen ditu, eta emeak, berriz, obuluak. Bizidun berriak sortzeko, beharrezkoa da arraren espermatozoideak eta emearen obuluak elkartzea.



Espermatozoidea, obulura sartu nahian.

Batzuetan, obuluak emearen barnean ernaltzen dira. Horri barneko ernalkuntza dela esaten zaio. Ugaztun, hegazti eta narrasti asko ernaltzen dira horrela.




Zezena eta behia. Ugaztunak. Barneko ernalkuntza.



Enarak. Hegaztiak. Barneko ernalkuntza.

Beste animalia batzuetan, berriz, emeak obuluak uretara botatzen dituzte eta arrak ere espermatozoideak uretara isurtzen dituzte. Uretan elkartu egiten dira biak -obuluak eta espermatozoideak-. Ernalkuntza horri kanpoko ernalkuntza deritza. Ugalketa mota hori dute arrainak eta zenbait anfibiok.



Izokinak. Arrainak. Kanpoko ernalkuntza.

DENAK EZ DIRA BERDIN ERNALTZEN, EZTA BERDIN JAIOZTEN ERE!

Lan-koadernoan egingo duzun kontzeptu-mapa horma-irudi batean adierazi eta horren ahozko azalpena presta dezakezu. 20



Animalia batzuek arrautzak jartzen dituzte; **obiparoak** edo erruleak deritze. Beste animalia batzuk berriz, bibiparoak dira, kumeak umetokian (amaren gorputz barruan) garatu eta, ondoren, erditu egiten dituztelako. Badira beste animalia batzuk, **obobibiparoak**, arrautzak jarri arren, emeek barruan gordetzen dituztenak. Barruko arrautza horietatik bizirik jaiotzen dira umeak, adibidez, sugedorriarenak.

OBIPAROAK EDO ERRULEAK

Ugaltze-prozesua ez da obiparo edo errule guztietan berdina. Batzuetan, barneko ernalketa sexuala gertatzen da. Beste batzuetan, berriz, kanpoko ernalketa sexuala.



Beha izeaiezu, arretaz, beheko bi prozesuei eta irakur itzazu marrazki-oinak. Gero, taldean, hitz egin ezazu bi prozesu horien arteko ezberdintasun eta berdintasunei buruz. Bukatzeko, aipa eta osa ezazu modu berean ugaltzen diren beste animalia batzuen zerrenda.

ENAREN ERNALKETA-PROZESUA

Enara arrak enara emea estaltzen du, hau da, barneko ernalkuntza gertatzen da.

Enara emeak arrautzak jarri eta bero mantentzen ditu habian.

Enara kumeak arrautzen barruan garatuz doaz.

Enara kumeek arrautzaren azala hausten dute mokoarekin eta oskoletik ateratzen dira.

IZOKINEN ERNALKETA-PROZESUA

Izokin emeak obuluak erruten ditu.

Izokin arrak, emeak errundako obuluak ernaltzeko, obuluaren gainean hazia (espermatozoidak) isurtzen du. Ernalkuntza kanpoan gertatzen da, beraz.

Poliki-poliki arraina garatuz doa.


EZ PENTSA HAUEK DIRENIK ERRULE BAKARRAK. GEHIAGO ERE BADIRA: NARRASTIAK, ARAKNIDOAK, MOLUSKUAK, KRUSTAZEOAK, INTSEKTUAK ANFIBIOAK...

...ETA, GAINERA, BATZUEK -IGELAK, TXIMELETAK...- METAMORFOSIA DUTE!!!

ORAIN ERE HITZ ARRAROAK ERABILIZEN, MARIJAKINTSU HORI/ ZER DA METAMORFOSIA?



1.AZPIMARRATU MAPAN GUK EGINGO DUGUN IBILBIDEA.




2.IBAIAREN ZEIN IBILPIDEA DELA USTE DUZU?ZERGATIK?

3.ZEIN ZABALERA ESTIMATZEN DUZU DUELA IBAIAK?

4.ZERRENDATU IKUSTEN DITUZUN IZAKI BIZIDUNAK:

ANIMALIAK	LANDAREAK

4.MARRAZTU IRUDIAN IKUSTEN DITUZUN IZAKI BIZIDUNAK.



5. DESKRIBATU GOIKO IRUDIA HURRENGO EGITURAK ERABILIZ:

ur hondoan

uraren gainazalean.....

ibai hertzean.....

lur hezea dagoen lekuan.....

ibai ondoko arroketan.....

6. HARTU LANDAREN MOTA BAKOITZETIK HOSTO BAT

ERANSKINA VI LANDAREEN BIZI FUNTZIOAK

LANDAREAREN IZENA

DESKRIBAPENA:

Zurtoina edo enborra? nolakoa?

Hostoak? kolorea? forma?

Non aurkitu genuen? kokalekua.

Lorerik badu?

NUTRIZIOA:

JAN

zer? nondik?

ARNASA

nondik?

HONDAKINAK KANPORATZEA

nondik?

UGALKETA

nola ugaltzen da?

HARREMANAK

inguruko estimuluen aurrean
aldaketarik izaten du?

ERANSKINA VII



LANDAREEN UGALKETA

Lur planetan landare espezie asko daude. Espezie horiek guztiak, hezetasun eta temperatura egokiak dituztenean, ugaltu egiten dira; hau da, landare heldu batetik haren kidekoak izango diren landare berri batzuk jaioko dira. Landareen ugalketa sexuala –arraren eta emearen arteko harremanaren bidezkoa– edo asexuala –arraren eta emearen arteko harremanik gabea– izan daiteke.

 Irakur ezazu hemen beheko eta hurrengo orrialdeko informazioa, eta gero, saia zaitez loreen atalak buruz ikasten.

LANDAREEN UGALKETA

Sexuala: - Landare loredunak, hazi bidez.
- Landare loregabeak (iratzek, goroldioak...), esporen bidez.

Asexuala: - Landare loredunak nahiz loregabeak: kimu bidez, adaxka bidez, errizoma bidez, sustrai-puja bidez, errabolla bidez.

UGALKETA SEXUALA

Ugalketa sexuala gertatzen da landareen zati arrak eta zati emeak parte hartzen dutenean. Ugalketa mota horri ederki beha geniezaioke landare loredunetan, lorea baita, landare horietan, ugalketarako organoa. Beste era batera esanda, lorea ondo aztertzen badugu, landarearen zati arra eta zati emea bereiz ditzakegu bertan. Loreak hainbat atalez osatuta daude:

PETALOAK
Lorearen korola osatzen dute denen artean. Hauek dira loreari irudia eta kolorea ematen dioten osagaiak.

SEPALOAK
Kaliza osatzen dute. Berdeak izan ohi dira eta hosto-itxura dute.




PISTILOA
.....
.....
.....

LOREZILAK
Estamine izenez ezagutzen dira. Lorearen zati arra osatzen dute. Estaminearen edo lorezilaren zatiak harizpia eta antera dira. Anteren barruan sortzen da polena edo lore-hautsa.



 Ikusten duzunez, pistiloaren azalpena idatzi gabe dago. Zoaz, bada, lan-koadernora, eta osa ezazu azalpena, bertako jarduerak egin ondoren.

12



Loreen zatiak identifikatzen ikasteko, egizu hurrengo jarduera. Horretarako loreak beharko dituzenez, zoaz natur gune batera, lore bila. Behar-beharrezkoak dituzuenak besterik ez itzazu jaso.

MATERIALA:

- Loreak
- Lupa (arrunta edo binokularra)
- Kirtendun orratza edo puntzoia
- Zeloak - Kartoi mehea



Nola egin:

- 1 Lorearen atalak bereizten joan: petaloak, sepaloak, estamineak... Lan horretarako kirtendun orratza erabili.
- 2 Zati bat banatzen duzunean, aztertu luparekin eta, kartoi mehean zeloz itsatsi ondoren, jarri zati horren izena.
- 3 Errepublikatu behaketa-lana zenbait lorerekin.

Zuk loreei buruz ikasitakoa egiaztatzen al da jarduera honetan? Zer aldatzen da? Zergatik ote?

Zer ondorio atera daiteke azterketa honetatik?.....




ERANSKINA VIII

ERNALKETA


Loreziletako polenak pistilo gaineraino, estigmaraino, iritsi behar du ernalketa gerta dadin.

Polena estigma ganean dagoenean, hodi mehe bat luzatzen du obulu bateraino. Hara heldutakoan, polenean dagoen zelula arrak obulu bat, bakar bat, emalduko du, nahiz eta obulu gehiago egon. Emaldutako lore horretan, obulutegia fruitu bihurtuko da eta obulua, berriz, hazi.

Hazia lurrera erortzen bada, eta baldintzak egokiak badira, ermetzen hasiko da: hazia ireki, sustrai txikiak atera... eta poliki-poliki, landare berri bat sortuko da.




- ▶ Azter ezazu beheko marrazkia, landare loreduen ugalketa-zikloa ulertzeko. Behar izanez gero, eska iezaiozu laguntza irakasleari. Jarraian, zoaz lan-koadernora eta burutu itzazu bertako jarduerak, ziklo honi buruzko ahozko azalpena prestatzeko.



- ▶ Ekar itzazu gelara hainbat fruitu: sagarra, marrubia, gerezia, arana, platanoa... Zatitu fruitu bakoitza erditik, eta aztertu haziak; lupa erabil dezakezu horretarako. Marraztu fruitu bakoitzaren hazia. Azterketa amaitutakoan, banatu fruitu zatiak denon artean eta on egin diezazuela!

Zure koadernoan landareen ugalketa-zikloari buruz idatzi duzun azalpen-testua berrikusi, idatzi eta irudiekin laguntzen baduzu, zure proiekturako erabil dezakezu.



EGUNA:

ARGITASUNEAN

ARGIRIK GABE

ZERRAUTSAZKO POTEA**KLARIONAZKO POTEA****KOTOIAZKO POTEA**

URARIK GABE

URAREKIN

ZERRAUTSAZKO POTEA**KLARIONAZKO POTEA****KOTOIAZKO POTEA**


Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimentatzen, pentsatzen eta komunikazioaren bitartez.



Patataren kimuetatik landarea nola sortzen den ikusteko, egizu honako esperientzia hau.

MATERIALA:

- Begiak nabarmen dituen patata bat
- Plater bat
- Ura



Nola egin:

- 1 Hartu patata eta zatitu bi puskatan.
- 2 Platerean ur pixka bat jarri ondoren, ipini bertan patataren bi zatiak.
- 3 Egun batzuk igaro ondoren, behatu arreta handiz eta marraztu ikusitakoa koadernoan.



Landare batzuk adaxka bidez nola ugaltzen diren ikusteko, egin ezazu honako esperientzia hau.


MATERIALA:

- Hainbat loreren adaxkak (geranioa, begonia, hortentsia...) - Ontzia - Ura
- Loreontziak lurrarekin



Nola egin:

- 1 Har itzazu adaxkak eta sartu urez betetako ontzian. Aldaketa nabarmenen bat sumatzen duzunean, adierazi koadernoan eta egin marrazkia: Zerbait gertatu al zaio urari? Ura gutxitu egin delako ontzia berriz bete beharrik izan al duzu? Adaxka guztiei une berean atera al zaizkie sustraiak? Adaxkaren hostoak handitu egin al dira?
- 2 Landa itzazu adaxkak loreontzietan.



Taldean hitz egin ondoren, idatz ezazu: zure ustez, nork eta zertarako erabiliko ditu ugalketa-sistema horiek?.....

.....

.....

.....




Esperientzia horien argazkiak edo marrazkiak zure proiekturako interesgarriak izan daitezke.

ERANSKINA XI

EGA IBAIA

IRUDIKATU MARRAZKIAN EGA IBAIAN AURKITU DAITEZKEEN IZAKI
BIZIDUNAK.



Animaliak: nagusiki amuarrainak, baita barboak, loinak, txipak, seinale karramarroa eta zarboren bat ere. Lertxunak, miruak, ahateak. Igelak, zapatariak, eltxoak.

Landaredia: zumeak, lizarrak eta haltzak nagusiki.

Izaki bizidun hauen irudiak jarriko ditugu arbela digitalean haurrek irudiak ikus ditzaten.

ZEIN ERLAZIO ANTZEMATEN DITUZU IZAKI BIZDUNEN ARTEAN?

IGELA ZUMEA AMUARRAINA LERTXUNA LIZARRA

Non bizi da?

**Zergatik? Nola
moldatzen da
bizileku
horretara?**

**Zer jaten du?
Nola lortzen du
bere janaria?**

**Nola arnasten
du?**

**Nola ugaltzen
da? Zergatik du
ugalketa mota
hori?**

**Badu arriskurik
bere inguruan?
Nola egiten die
aurre?**

**Mugitzen da?
Nola?**

ERANSKINA XII

ELIKA SAREA

Elika sare gehiago eraikiko dituzte cmaptools programa erabiliz ezagutza zabaltzeko.





IZAKI BIZIDUN BATEN DESKRIBAPEN TESTUA IDATZI HORRETARAKO
IRIZPIDE HAUEK ERABILI:

- izena
- bizilekua
- nolakoa da? (itxura) eta zein egitura dituen garatuak ingurura moldatzeko.
- Zer jaten du? Nola lortzen du janaria?
- Nondik arnasten du?
- Nola ugaltzen da?
- Zein harreman ditu beste izaki bizidunekin?

ERANSKINA XIV

MURAL BAT ERAIKI: ZER EGITEN DUTE IZAKI BIIDUN GUZTIEK?

ZER EGITEN DUTE IZAKI BIZIDUN GUZTIEK?		
ANIMALIAK	LANDAREAK	

ERANSKINA XV EGA IBAIAREN EKOSISTEMA MAKETA

Plastiko gardenezko kutxa batean eraikiko dugu:

- Zein elementu bizidun eta bizigabe daude ekosistema honetan?
- Zein material erabiliko dugu hauen errepresentazioa egiteko?

Lurra, paper gardena (ura), plastilina (izaki bizidunak...)

- Non kokatuko dugu bakoitza? Zergatik?



Zientziari ekin: eskolarako proposamenak naturaren gertaerak azaltzeko, esperimendatzeko, pentsatzeko eta komunikazioaren bitartez.